



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA

FACULTAD DE ECONOMÍA Y EMPRESA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua

GRADU AMAIERAKO LANA

Immigrazioak gure herrialdean duen eragin sozial eta ekonomikoa

Egilea: Ibane Zubiaurre Telleria

Zuzendaria: Ainhoa Garayar Erro

Donostia, 2019ko uztaila



AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. EREDU TEORIKOA.....	6
2.1 IMMIGRAZIOAREN DEFINIZIOA	6
2.2 XX. eta XXI. MENDEKO EGOERA	6
2.3 ATZERRITARREN ETA BERTAKOEN EZBERDINTASUNAK	17
2.4 IMMIGRAZIOA EUSKAL HERRIAN.....	21
2.5 EUSKAL HERRIKO GAUR EGUNGO EGOERA	30
3. ZATI ENPIRIKOA	38
a) SOS ARRAZAKERIA eta CEAR instituzioak.....	38
b) Etorkinen etorrerari buruzko joera, abantaila eta desabantailak.	42
c) Gaur egungo kasurik ohikoena.	44
d) Atzerritarren ohiturak eta gure ohiturak.	45
e) Erretxazoa eta diskriminazioa. Arrazoiak	46
f) Okupazio-tasaren egoera, atzerritarren kasuan zerbitzuen sektoreko gehiengoaren eta industrian, nekazaritzan, gizonezkoak gehiengoak izatearen zergatia.	49
g) Osasuna eta hezkuntza, bertan ageri diren arazo garrantzitsuenak, integrazioan eta atzerritarren etorrerak gure hizkuntzan duen eragina.	51
h) Errealitateko kasu bat.....	54
4. ONDORIOAK.....	56
5. BIBLIOGRAFIA	61
ERANSKINA:	63



TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: XX. mendeko hamar urteetako Jaiotzen, heriotzen eta migrazioaren bilakaera. Espainia.	8
Taula 2: Espainiako Egoiliar biztanleriaren eboluzioa (2006-2015).....	11
Taula 3: Espainiako Egoiliar biztanleriaren eboluzioa eremu geografikoen arabera.	12
Taula 4: Atzerritarrak herrialdeko. Errolda Jarraituko Estatistika. 2015ko uztailak 1 ...	13
Taula 5: Egoiliarrak diren atzerritarren banaketa autonomia erkidegoko 2010ko uztailak 1an	14
Taula 6: Azkenengo 12 hilabeteetan nahiz era beharra izan, mediku tratamendura sarbidea izan ez duten biztanleriaren ehunekoak eta horretarako ateratako kausa.	18
Taula 7: Ikasle matrikulatuen kopurua nazionalitatearen arabera (eskualdeak) eta ikasketa eremua. 2014-2015 ikasturtea.....	20
Taula 8: Euskal Herriko herritarren iritzia atzerriko immigrazioaren inguruan. 2004,2007.	27
Taula 9: Jatorri atzerritarreko biztanleria EAEn eremu geografiko eta sexuaren arabera 2017.urtea	30
Taula 10: Jatorri atzerritarreko biztanleria EAEn eremu geografiko eta sexuaren arabera 2018.urtea	31
Taula 11: Jatorri atzerritarreko populazioaren bilakaera EAEn, eremu geografikoaren eta sexuaren arabera. 1998-2019	32
Taula 12: Jatorri atzerritarreko biztanleria Araban eremu geografikoaren eta sexuaren arabera 2017.urtea	33
Taula 13: Jatorri atzerritarreko biztanleria Araban eremu geografikoaren eta sexuaren arabera 2018.urtea	33
Taula 14: Jatorri atzerritarreko biztanleria Bizkaian eremu geografikoaren eta sexuaren arabera 2017.urtea	34



Taula 15: Jatorri atzerritarreko biztanleria Bizkaian eremu geografikoaren eta sexuaren arabera 2018.urtea	35
Taula 16: Jatorri atzerritarreko biztanleria Gipuzkoan eremu geografikoaren eta sexuaren arabera 2017.urtea	36
Taula 17: Jatorri atzerritarreko biztanleria Gipuzkoan eremu geografikoaren eta sexuaren arabera 2018.urtea	36

IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudia 1: Egoiliarrak diren atzerritarren eta egoiliar baimen kopuruen eboluzioa.....	10
Irudia 2: Egoiliarrak diren atzerritarren banaketa probintziaka 2010ko uztailaren 1 an .	15
Irudia 3: Enplegu-tasa nazionalitatearen eta sexuaren arabera. 2015ko hirugarren hiruhilekoa.....	16
Irudia 4: Atzerritar okupatuak aktibitate ekonomikoaren eta sexuaren arabera. (Milaka pertsona) 2015ko hirugarren hiruhilekoa.	16
Irudia 5: XX. ETA XXI. mendeetako Euskal Autonomia Erkidegoko saldo migratzaileak.	21
Irudia 6: Euskal Herriko eta Espainiako egoiliarren eboluzioa. 1998-2007.....	22
Irudia 7: Egoiliar diren atzerritarren konposizioa kontinenteen arabera. Euskal Herria (2000,2007) eta Espainia (2007)	24
Irudia 8: Biztanleria atzerritarren konposizioa kontinenteen arabera Euskal Herriko hiru lurraldeetan. 2007	25

1. SARRERA

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua amaitzeaz nago eta Gradu Amaierako Lan hau egiteko zenbait aukeren artean egon ostean, interesgarria eta asko ikasi nezakeen gai hau aukeratzea erabaki nuen: “ *Immigrazioak gure herrialdean duen eragin sozial eta ekonomikoa*”. Lan hau bideratu duen pertsona eta tutorea Ainhoa Garayar Erro izan da.

Lan hau egiterako orduan, hainbat duda izan nituen gaia aukeratzeko orduan. Irakaslearen hautaketan ez bezala, lan hau egiteko zer gairen inguruan arituko nintzen ez nuen argi hasieratik. Hainbat gai proposatu ostean, zenbait interesgarriak ziren baina lehen lauhilekoan kanpoan egongo nintzelakoan, ezin izan nuen horietako gehien gustatu zitzaidana aukeratu. Beraz, buruari zenbait buelta eman ostean, immigrazioaren gaia bururatu zitzaidan. Pentsatzen jarri eta gauza askoren inguruan aritu nezakeela iruditu zitzaidan eta hortaz gain, horren inguruan jakintsuak diren pertsona batzuk ere ezagutzen nituen eta familian zein lagunen artean ere informazio ugari ateratzeko aukera nuela uste nuen. Beraz, buelta gehiegi eman gabe, horri eutsi nion.

Metodologia aldetik, zorte handia izan dudala uste dut, interneten informazio pila bat aurkitu ahal izan dudalako. Eredu teorikoa lantzeko, bereziki google akademikoa erabili dut eta bertan zenbait artikulua eta ikerketa lanak irakurriz, informazio asko lortu dut. Hortaz gain, zati enpirikoari loturik, elkarrizketa batzuk burutu nituen, alde batetik gai horren inguruan aritzen diren instituzioko bi langileri, hau da, SOS ARRAZAKERIA-ko bati eta CEAR Euskadiko beste bati. Ondoren herriko adin ezberdinetako bi biztanleri egitea pentsatu nuen, eta azkenik immigratzailea izandako pertsona bati. Egia esan, bertatik atera izan dudana informazio guztiagatik oso zorionekoa sentitzen naiz. Izan ere, edozein pertsonak ez duelako erraztasun hori hitz egiterako, gauzak azaltzeko edota beraien ikuspuntua ematerako orduan.

Azkenik, lanaren egiturari dagokionez, hasiera batean immigrazioa zer den azaltzeari ekin diot. Horren ondoren, immigrazioak XX.mendean eta XXI.mendean zehar suposatu duenaren inguruan aritu naiz. Honi jarraituz, pixka bat XXI.mendean zentratuz, atzerritarrek gurekin alderatuz daukaten bi ezberdintasun aipatu ditut. Azkenik eredu teorikoari amaiera emateko, Euskal Herriko egoera aztertu dut, bai orain dela urte batzuk, baita gaur egun ere. Zati enpirikoari dagokionez, zenbait elkarrizketa burutu ostean, galdera orokor batzuk formulatu eta hiztun bakoitzak horren inguruan esandakoaren arabera ikuspuntu ezberdinak adierazi ditut. Laburbilduz, lan honen inguruko, bai eredu teorikoaren baita zati enpirikoaren ondorio orokor batzuetara iritsi naiz.

2. EREDU TEORIKOA.

2.1 IMMIGRAZIOAREN DEFINIZIOA

Immigrazioa, herrialde batera beste eskualde batean jaio edo herrialde batetik datozen pertsonen sarrera edo irteera da, hau da, etorreraren ekintza eta efektua da. Epe hau beste herrialde batera iristen den pertsonari dagokio, normalean arrazoi ekonomiko, politiko edo akademikoagatik. Immigrazioa fenomeno sozial eta demografiko bat da, non, azken bi hamarkadetan gizartearen eraldaketa handiena suposatu duen. Gaur egun Espainiako atzerritarren ehunekoa %12an kokatzen da gutxi gora behera, migrazio-fluxuen hartzaille diren Europako beste zenbait herrialdeen antzeko proportzioa dutelarik. (Definición de. 2008-2019)

2.2 XX. eta XXI. MENDEKO EGOERA

Ramírez (2000)-ek zioen bezala immigrazioak eboluzio bat izan du XX. eta XXI. mendeetan zehar. XX. mendeko immigrazioa ezberdina izan zen XXI. mendeko immigrazioarekin alderatuta. XX. mendeari dakionez, migrazio interkontinentalak Europako historia zehaztu dute azkeneko hiru milurtetan. XX. mendeko azken berrogeita hamar urteetan, zehazki 1945 eta 1975. urteetan zehar, hasierako hamarkadan azelerazio prozesu bat bizi izan zuten, izan ere, gerraren eta mugen ondorioz milioika pertsona berfinkatu baitziren. Hurrengo bi hamarkadetan aldiz, momentu hartan eskulan aurreratuen zuten herrialdeak hain aurreratuta ez zeuden herrialdeetan xurgatu zuten beraien hedapen ekonomikoa mantentzeko beharrezko laguntza bat zelako. Herrialde aurreratu hauek tradizionalki emigrazio herrialdeak izan zirenak, hala nola, Alemania eta Erresuma Batua, herrialde immigrante bihurtu ziren. Xurgapen honen gorengo garaia 1960 eta 1973. urteetan zehar eman zen. Aipatutako herrialde aurreratuenak beraien hedapen ekonomikoa nola hazten zihoan ikusi zuten, hau da, urtero beraien Barne Produktu Gordina (BPG) %4,8an igotzen baitzen.

Hainbat jakintsuk diotenez, zalantzarik gabe, lan mobilizazio hori batez ere herrialde hartzaileen hedapen ekonomikoaren erritmo ez hain itzelagatik eman baitzen. Hortaz gain, beste zenbait faktorek ere eragina izan zuten. Izan ere, lan autoktonoaren gabezia nabaria, herrialde horietako jaiotza-tasen jaitsiera larria, etab.

Herrialde aurreratu horietara joan zirenak batik bat Europako mediterraneoko herrialdeak ziren, hala nola, Italia, Espainia, Portugal eta Grezia, segida horretan. Hauetara jarraituz, Turkia eta Jugoslavia etorriko ziren. Azkenik, Magreb-eko hiru herrialdeak (Aljeria, Maroko eta Tunez) ere lagundu zuten nahiz eta hauek batik bat Frantziak xurgatu zituen.



1977.urtean oraindik 5.000.000 langile zeuden lanean Europatik zehar eta horietatik 400.000 Espainiarrak ziren. Urte horretan, krisia hasi eta bost urte aurrerago, Italia zen geratzen zen herrialde emigrante bakarra, oraingoan ez ziren migrazioaren herrialde ospetsuenera jo (Frantzia) Suitza eta Mendebaldeko Alemaniara baizik. Beste herrialde emigratzaileen postua, Espainiarena esate baterako, Turkiak, Jugoslaviak eta Portugalek okupatu zuten batik bat. Portugesen emigrazio handiena Frantziara bideratu zen, bertan Italiako zein Espainiakoak ordeztuz, bertan bi herrialde hauetako 200.000 bat pertsona zeudelarik. Lau urte ondoren, J.Werquin-en ikerketa baten arabera, egoera hura nahiko finkatuta geratu zen (WERQUIN (1985), Ramirez-en (2000) zitatuak).

Ramirez (2000)-ek ongi azaltzen zuen bezala, Espainiako langileen harrera beste atzerriko langileen bezala, iragankortasunak izan zuen lehentasuna. Helburua ez zen herrialde berriak kolonizatzea ezta jaiotze-tasa baxuagatik biztanleriaren galera konpentsatzea, lan eskasia estaltzea baizik.

Urteen poderioz, egoera aldatzen joan zen pixkanaka. Espainiaren kasuan, aldaketa politiko batzuk eman ziren eta horrek Espainiako miraria delakoa ekarri zuen 60 eta 70. urteetan zehar. Garapen horrek biztanleriaren berreskurapen handia ekarri zuen sektoreen artean baina baita geografikoki lurralde nazionalean ere, non bere ardatza Euskal Herrian, Katalunian eta Madrilen zituelarik.

Laburbilduz, Espainiako egoera ekonomiko desegokia zela eta, 1946 eta 1973. urteetan zehar, Espainiako 2.600.000 pertsona inguru mobilizatu ziren atzerriko herrialdeetara egoera egokiago baten bila. Migrazio horien helmuga, batik bat, Frantzia, Alemaniako Errepublika Federala eta Suitza izan zirelarik.

Cabré et al., (2000)-k azaleratzen zuten bezala, Espainia herrialde emigratzailea izan zen hainbat urteetan zehar, hala ere, hirurogeita hamarreko hamarkadako erdialdean herrialde immigrantea izatera pasatu zen. Hasiera batean antzinako Espainiarren itzulergatik eta beste nazionalitate batzuetako pertsonen etorreragatik ondoren.



Taula 1: XX. mendeko hamar urteetako Jaiotzen, heriotzen eta migrazioaren bilakaera. Espainia.

Periodo	Nacimientos	Defunciones	Saldo Migratorio	Tasa Bruta de Natalidad	Tasa Bruta de Mortalidad	Tasa de Migración Neta
1901-1910	6.712.989	4.809.136	-526.618	34,77	24,91	-2,73
1911-1920	6.252.512	4.825.435	-32.679	30,22	23,32	-0,16
1921-1930	6.639.229	4.265.102	-86.219	29,46	18,93	-0,38
1931-1940	6.028.289	4.231.597	540.561	24,26	17,03	2,18
1941-1950	5.855.913	3.507.369	-245.237	21,64	12,96	-0,91
1951-1960	6.152.507	2.804.476	-882.622	20,96	9,56	-3,01
1961-1970	6.706.600	2.801.466	-532.224	20,78	8,68	-1,65
1971-1980	6.608.099	3.013.989	192.075	18,43	8,41	0,54
1981-1990	4.535.119	3.099.796	256.059	11,75	8,03	0,66
1991-2000	3.317.541	3.066.372	814.680	8,30	7,67	2,04

Iturria: Cabré et al., (2002).

Taula honetan ikus genezakeen bezala, migrazioak indar handia izan du XX. mendean zehar. Lehen aipatu dugun bezala, XX. Mendeko lehenengo hiru hamar urtekotan emigrazioa oso handia izan zen, non, Espainiako biztanleria izugarri jaitsi zen. Honi jarraituz, emigrazioak izan zuen urterik potoloena taulak adierazten duen bezala, 1951-1960. hamarkada izan zen, nahiz eta aurreko zein ondorengo hamarkadetan ere emigrazioaren pisua oso handia izan zen.

Dena den, emigrazioaren ondorioz eman zen biztanleriaren galera hori, konpentsatua izan zen hazkunde naturalarengatik. 80. hamarkadatik aurrera, nabaria da taulari erreparatuz gero, migrazioaren datu positiboak nahiko konstante mantenduko direla, non, honek Espainiako biztanleriaren hazkunderan lagunduko duen, batik bat immigrazio internazionalaren laguntza nabariarengatik.

Beraz, hilkortasun-tasaren eta ugalkortasun-tasaren aurrerapenarekin alderatuz, korrante migratzaileak indar handiagoa izan dute eta dirudenez, XXI. mendean zehar indar handia hartzeko itxura nabarmena du.

Fuentes eta Callejo (2011)-k ongi aztertu zuten bezala, XXI. mendean, gure herrialdean azken urteotan immigrazioak izugarri egin du gora, gorakada horren ondorioz, Europako herrialde garatuenean parean jarri da Espainia. Immigrazioaren gorakada horren ondorioa Espainian eman zen ekonomiaren zein enpleguaren igoerarengatik izan zen batik bat.

Atzerritarren igoera horrek egoera ekonomikoari bultzada bat emateaz gain, eskulan malgu eta merke ugari ekarri zuen, batik bat eraikuntzaren, nekazaritzaren edota zerbitzuen sektoreetan. Ordurarte, egoera horrek ez zuen inongo kezka sozialik eragin 2007.urte amaiera arte. Egoera hartan eman zen krisi ekonomiko latza zela eta, langabeziak izugarri egin zuen gora, hortaz gain, aurrekontuetan zein prestazio

sozialetan murrizketak ere eman ziren. Egoera honetan, eztabaidan jarri ziren bai immigranteen etorrera baita gure herrialdean egoiliarak zirenen egoera ere. Pertsona hauek Espainiako ongizatean zein etorkizuneko iraunkortasunean izan zezaketen eragina zen beraien kezka nagusia.

Azken bi bosturtetan atzerritarren proportzioak gora egin zuen erroldatutako pertsonen %12,1a irudikatuz (5,7 milioi pertsona baino gehiago). Honen ondorioz Espainian zeuden atzerritarren kopurua zela eta, Espainia Europar Batasuneko bigarren postuan kokatu zen Alemaniaren atzetik(UE-27). Lehen aipatu bezala, 2000. urtetik aurrera, atzerritarren finkapenak izugarri egin zuen gora, batik bat 2000-2005. urte bitartean, non, urtero 16,8 atzerritar finkatzen ziren 1000 herritarrekiko (Izquierdo, 2006).

Zenbait ikertzailek diotenez, immigranteen eskulanak mesede egin zion batik bat bertako langileen lan egoera hobegoei sarrera emanez. Modu berean, immigrante “zaintzaileek” hein handi batean bertako emakumeen jardura-tasa-ren igoeran izugarri lagundu izan zuten, etxeko esparruan dauden lanak onartzean, bertan menpekotasuna duten pertsonen ardura edo zainketan (adineko pertsonak, desgaituak, umeak) baita etxeko lanak barneratzean ere. Beraz laburbilduz, immigrazioa adierazle garrantzitsua izan da Espainiako egoera ekonomikoaren hazkuntzan.


Honekin jarraituz, 2002. urtetik aurrera, immigranteen etorrerak gure herrialdeko arazo garrantzitsuenetako bat izan zen *Centro de Investigaciones Sociológicas (CIS)*-eko barametroek aldizka adierazi izan zuten bezala. Nahiz eta oraindik imigranteekiko aldeko jarrerak gehiengoa izaten jarraitzen duen, bertako herritarrak beraien iritzia emateko ohitura zuten geroz eta gehiago eta hauen kezka nagusietakoa lanpostuekiko nahiz gizarte-segurantzako prestazioekiko (osasungintzan, eskolako plazetan, etxebizitzetako laguntzetan, etb.) immigranteek bertako herritarrekin lehiatzen zutela da (Cea D’Ancona y Vallés, 2008, 2009, Fuentes eta Callejo (2011) zitatuak). Gainera, konpetentzia maila honek immigranteen eskubideak mugatzearen aldeko jarrerak eta aldiz programa sozialetan moldatzearen aurkako jarrerak piztu izan zituen (Colectivo Ioé, 1995, Fuentes eta Callejo (2011) zitatuak).

Gaur egun, beharreak da immigranteei ulertzea eta beraien tokian jartzea. Horrekin batera beraien estrategia ekonomikoak zein biziraupenekoak ere kontutan izan behar dira. Zenbaiten ustetan, herrialde hartzailean immigranteek hartzen duten papera aztertu eta ikertu egin behar dela diote: langile bezala, familia edo zenbait komunitateko kide bezala, baina baita zerbitzu pertsonalen eta herritarren hornitzaile gisa ere. Altxor publikoaren zergadunak ere izaten dira beraien ordaintzen dituzten zergen ondorioz (zuzenekoak zein zeharkakoak), baita beraien kotizazioa gizarte-segurantzaren ere.



Gure herrialdera etorri diren etorkinen ezaugarriak oso ezberdinak dira, hau da, ez daude talde homogeen batera egokituta bizi baldintza zein ezaugarri berdina dituztenak. Esate baterako, lau talde ezberdin bereiztu ahal izango ditugu. Batetik, Europar Batasuneko parte diren herritarrak (jubilatua, kalifikazio maila ertaina duten langileak, ikasleak, etab.), bestetik mendebaldeko herrialde garatuetatik datozen zeinen Europar Batasuneko kide ez direnak, Ekialdeko Europatik datozen herritarrak Europar Batasunera 2004an sartu zirelarik eta azkenik saski-naski bat, non bertako herritarrak garatzen ari diren herrialdeetatik datozen. Lau talde hauetatik batik bat azkenengo biak dira “immigrante ekonomiko” diren kategoria horrekin bat-etortzen direnak.

Irudia 1: Egoiliarak diren atzerritarren eta egoiliar baimen kopuruen eboluzioa.



Iturria: Fuentes eta Callejo (2011).

Denbora guzti honetan aipatu dugun bezala, migrazio-fluxuen intentsitatea zein bolumena izugarria izan da, baita atzerritar biztanleriaren igoera izugarria, batik batik azkenengo hamarkadan zehar. Biztanleriaren Udal Erregistroan jasotzen diren datuen arabera, 2000.urteko urtarrilean, Espainian, 40,4 milioi biztanletatik, atzerriko nazionalitatea zuten 923.000 pertsona zeuden.

Aldiz, grafikoari erreparatuz, hamar urte beranduago (2010ko abendua), zifra hori seikoiztu egin zen, 45 milioiko biztanleria batetik guztira sei milioi atzerritar ziren momentu hartan. Laburbilduz, hamar urte hauetan, atzerritarrak Espainiako biztanleriaren %2,28 izatetik, %12,17 izatera pasatu ziren.



Lehenengo irudian ikus daitekeen bezala, Biztanleriaren Udal Erregistroan dauden datuak Barne-Arazoetako Ministeriokoekin alderatzeko aukera dago. Esate baterako 2010ko ekainean, Udal erregistroan sei milioi atzerritar zeudela adierazten zen bitartean, Ministerioan egoitza-baimena zuten atzerritarrak 4,7 milioi baino zertxobait gehiago ziren. Zalantzarik gabe, gure mugen artean agiririk gabeko pertsona asko daude baina zoritxarrez ezin da jakin zehatz-mehatz zenbat diren. Ministerioako eta Udal erregistroko datuen arteko ezberdintasuna, dagoeneko Espainian egoiliar diren pertsona immigranteak gehiago direla Ministerioak kontabilizatzen dituenak baino baita.

Taula 2: Espainiako Egoiliar biztanleriaren eboluzioa (2006-2015)

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Total	44.009.969	44.789.659	45.668.938	46.486.621	46.486.621	46.667.175	46.818.216	46.727.890	46.512.199	46.439.864
Españoles	40.079.053	40.335.225	40.582.643	40.852.612	41.084.042	41.354.734	41.582.186	41.655.210	41.835.140	41.992.012
Extranjeros	3.930.916	4.449.434	5.086.295	5.386.659	5.402.579	5.312.441	5.236.030	5.072.680	4.677.059	4.447.852

Iturria: Núñez et al., (2018)

Hurrengo taulara salto eginez, lehenengo grafikoko 2000.urteetik 2010.urtera arteko datuak ikertu ondoren, bigarren taula honetan 2015.urtera arteko datuak azaltzen dira. Ikus daitekeen bezala, 2010.urteetik 2015.urtera bitartean biztanleria orokorraren bolumenak ez zuen bilakaera handirik izan, jaitsiera txiki bat baizik. Izan ere, Espainiarren kopuruak nahiz eta zertxobait gora egin, atzerritarren kopuruak behar bezala joera hartu zuen, hau da, 5.402.579 izatetik 4.447.85 izatera.

Immigranteen ikuspegitik bi sustagarri edo pizgarri daudela esan genezake erroldatzerako orduan. Batetik biztanleriaren udal erregistroan egotean eskubide sozialak izateko aukera ematen diolako (bereziki hezkuntzan, osasungintzan eta etxebizitzetako politketan non Espainiako herritarren eskubide berak dituzten) eta finkatze proba bat izatea, non erregularizatzeko helburuz erabil daitekeen.

Denboran zehar, agiririk gabeko atzerritarren kopuruak gorabehera asko izan ditu. Egia da, Espainiako gobernuak fenomeno hori murrizteko helburuarekin arautze prozesuetan esku hartu duela. Esate baterako, 1991.urtean 116.000 agiririk gabeko immigrante erregulatu ziren, 2000-2001.urteetan 220.000 atzerritar, 2002.urtean 240.000 eta 2005.urtean 580.000. Hala nola, legeak erregulazio mekanismo bat aurrera eraman du hiru urte pasatetik aurrera, egoera irregularrean dauden pertsonen gizartratzea dela eta. Honekin, nahiz eta agiririk-gabeko atzerritarren bolumena mantentzen den, kantitate hori muga batzuen barruan gertatzen da soilik, hau da, agiririk ez duten pertsona horiei ezegonkortasunetik zein ahultasunetik ihes egiteko aukera ematen dielarik.



Hortaz gain, kontutan izan behar dela diote, legedia bera dela kasu batzuetan irregulartasuna sorrarazten duena, hau da, lan edo/eta bizileku baimenak berritzailekoan zailtasunak izan ohi dituztelako. Izan ere, eskatzen dituzten baldintzak kasu batzuetan oso zailak egiten zaizkie, batik bat krisi ekonomikoa dela eta, langabeziaren maila altua denean edota lan-ezgonkortasuna ageri denean.

Taula 3: Espainiako Egoiliar biztanleriaren eboluzioa eremu geografikoen arabera.

NACIONALIDAD	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010
Resto de la UE	277.845	375.487	489.813	636.037	918.886	2.102.654	2.346.515
Resto de Europa	29.772	47.209	202.411	404.643	690.970	731.806	226.379
Latinoamérica	117.868	189.464	730.459	1.237.806	1.500.785	1.758.295	1.741.179
Norteamérica	14.286	17.374	22.104	24.613	27.292	26.595	28.250
África	147.875	228.972	423.045	579.372	785.279	909.757	1.048.909
Asia y Oceanía	44.719	57.811	100.688	144.748	220.281	259.133	317.194
Total	632.624	916.730	1.969.107	3.027.800	4.144.166	5.788.797	5.708.940

Iturria: Fuentes eta Callejo (2011)

Denok dakigun bezala, immigratzaileen artean, hainbat nazionalitate ezberdin aurki daitezke. Hala nola, 3. taulan ikus genezakeen bezala, urtetik urtera atzerritarren bolumenak izugarri egin du gora nazionalitate guztietan. Europar Batasunetik zetozenak asko ziren, batik bat Erresuma Batutik, Alemaniatik, Italiatik, Frantziatik edota Herbehereetatik. Hortaz gain, Europako ekialdetik ere, Errumaniarrak, Poloniarrak edota Bulgariarrak asko ziren. Esate baterako azken hamarkadan Errumaniarren kopurua hirukoiztu egin zen, zeinen 2008. urtetik aurrera talde ugariena izan zen. Europarrez aparte, esan beharra dago beste nazionalitateetako talde Marokoarrak edota Latinoamerikarrak ere pisu handia zutela.

Adibidez, 2009. urteko Urtarrilaren 1an, biztanleria atzerritarren %14,1a Errumaniarrak ziren, %12,7a Morokoarrak, %7,5 Ekuatorianoak eta %6,7 Britainiarrak. Lau nazionalitate hauek batzen zuten Espainian errolatutakoen %40a.



Taula 4: Atzerritarrak herrialdeko. Errolda Jarraituko Estatistika. 2015ko uztailak 1

	Número de personas	% respecto al total de extranjeros
Total	4.718.864	100
Rumanía	751.208	15,9
Marruecos	749.274	15,9
Reino Unido	282.120	6
China	191.341	4,1
Italia	179.129	3,8
Ecuador	176.247	3,7
Colombia	150.956	3,2
Bulgaria	141.880	3
Alemania	130.505	2,8
Bolivia	126.001	2,7
Francia	99.302	2,1
Portugal	98.385	2,1
Ucrania	90.911	1,9
Pakistán	77.478	1,6
República Dominicana	75.206	1,6
Argentina	75.037	1,6
Brasil	73.588	1,6
Perú	71.045	1,5
Paraguay	692.217	1,5
Rusia	68.160	1,4

Iturria: Núñez et al., (2018)

Hirugarren taula osatzeko, 2015.urteko egoera nolakoa zen aztertu genezake. 2010.urtean, Europar Batasuneko beste kideak alde batera utzita, Latinoamerikarrak eta Marokoarrak ziren bolumen handiena hartzen zutenak. 2015.urtean ere, Marokoarrak pisu handienetarikoa zutenak ziren, hau da, biztanleria osotik %15,9 zirelarik (749.274 pertsona gutxi gora behera). Hauei jarraituz errumaniarrak zeuden, hauek ere biztanleria osotik %15,9 zirelarik, hau da, gutxi gora behera 751.208 pertsona. Ondoren, Erresuna Batukoak, Txinatarrak, Italiarrak, etab. egongo ziren %6a, %4'1, %3'8, etab-ekin, aurrekoekin alderatuz nahiko pisu txikia zutelarik.

Lehen ere aipatu dugun bezala, dakigunez, atzerritarrak ez daude uniformeki banatuta penintsulan zehar, baizik eta espezifikoki leku eta komunitate zehatz batzuetan kokatzeko joera izan dute. Kontzentrazio maila altuena duen lekua kosta mediterranea izango litzateke Madrileko komunitatearekin batera. Portzentajeetara joz, Kataluniari %20,9a dagokio, Madrileri %18,7a eta Balentziako komunitateari



aldiz %15,5a, denen artean %55,1a osatzen dutelarik. Komunitate hauei Andaluziakoa gehituz gero, %67,3an kokatuko ginateke Espainiako egoiliarrei dagokienez.

Taula 5: Egoiliarrak diren atzerritarren banaketa autonomia erkidegoko 2010ko uztailak 1an

COMUNIDAD AUTÓNOMA	Nº EXTRANJEROS	PORCENTAJE S/ POBLACIÓN
Andalucía	698.375	8,36
Aragón	172.015	12,79
Asturias	49.149	4,53
Baleares	241.704	21,87
Canarias	305.661	14,45
Cantabria	39.010	6,59
Castilla-La Mancha	228.290	10,89
Castilla y León	167.597	6,56
Cataluña	1.193.283	15,90


(Continuación)

Comunidad de Madrid	1.071.292	16,62
Comunidad Valenciana	884.622	17,35
Extremadura	38.747	3,50
Galicia	109.222	3,91
La Rioja	46.342	14,40
Murcia	240.605	16,48
Navarra	70.931	11,15
País Vasco	139.229	6,39
Ceuta	3.993	4,96
Melilla	8.873	11,67
Total	5.708.940	12,16

Iturria: Fuentes eta Callejo (2011)

Aldiz, portzentaje erlatiboetara jotzen badugu, atzerritar bakoitzak autonomia erkidego bakoitzean irudikatzen duena, lehenengo postuan Balearrak egongo ziren %21'8-rekin eta honi jarraituz Balentzia (%17'3), Madril (%16'6), Murtzia (%16,4) eta Katalunia (%15,9). Euskal Herria aldiz, beste autonomia erkidegoekin alderatuz, oso pisu txikia du, hau da, %6'39.


Irudia 2: Egoiliarak diren atzerritarren banaketa probintziaka 2010ko uztailearen lan



Iturria: Fuentes eta Callejo (2011)

Honen barruan talde bakoitzak zein lekutara joateko joera duen ikusi daiteke. Adibidez, Errumaniarrak normalean Madrilen edota Castelló-n finkatzeko joera dute, Marrokiarrak aldiz Katalunian edota Ekialdeko Andaluzian. Latinoamerikarrak esate baterako Madril (eraikuntza eta zerbitzuak) edota Murtzia (nekazaritza) aukeratzen dituzte. Pakistandarrak adibidez, batik bat Bartzelona esleitzen dute beraien bizitoki eta Aljeriarrak aldiz Alacant. Jarraibide edota eredu hauek zona bakoitzeko lan eskaeraren arabera izaten da, izan ere, Espainiako lan merkatua nahiko segmentatuta baitago nazionalitatea eta sexuaren arabera. Baita aurretik asentatu diren migratzaileen sare migratzaileen funtzionamendua ere.


Irudia 3: Enplegu-tasa nazionalitatearen eta sexuaren arabera. 2015ko hirugarren hiruhilekoa.



Iturria: Núñez et al., (2018)

2015.urteko enplegu-tasa dela eta, atzerritar eta bertakoen (emakume zein gizonezko) egoera honako grafiko honetan antzeman dezakegu. Grafikoan ikusten dugun bezala, atzerritar zein Espainiarren arteko ezberdintasuna ez da oso handia, eta hori adierazle positibo bezala har genezake. Esate baterako, emakumeen zein gizonezkoen kasuan, nahiz eta alde handirik ez egon, atzerritarren enplegu-tasa handiagoa da Espainiarrena baino. Emakumeetan dagoen aldea, zertxobait handiagoa da (5,85) gizonezkoetan dagoena baino (4,95), hala ere, ez dago alde handirik.

Irudia 4: Atzerritar okupatuak aktibitate ekonomikoaren eta sexuaren arabera. (Milaka pertsona) 2015ko hirugarren hiruhilekoa.



Iturria: Núñez et al., (2018)

Lehen aipatu bezala, atzerritarren okupazio-tasa sektorearen arabera oso nabarmena da. Atzerritar emakume zein gizonezkoen okupazio-tasa handiena zerbitzuetan dago, gainera emakumeen kopurua dezente handiagoa da gizonezkoena baino. Honen arrazoia, lana aurkitzerako orduan, “errazena” dela izan daiteke edota lan asko



dagoelako sektore horretan. Egia da ere, normalean, bertako jendeak nahiago duela bertara ez dedikatu. Honi jarraituz, eraikuntzaren, industriaren eta nekazaritzaren sektoreak egongo lirateke batik bat. Hiru sektore hauetan gizonezkoak dira gehiengoak, eraikuntzan bereziki. Industrian zein nekazaritzan esate baterako, emakumearen papera askoz handiagoa da eraikuntzaren sektorearekin alderatuz, lehenengo bietan 45'9 eta 37'1 milioi pertsona, baina aldiz eraikuntzan 4'4 milioi pertsona direlarik. Gizonezkoen gehiengo hori, dagoeneko estruktura bat finkatuta dagoelako izan ohi da, hau da, lan asko maskulinizatuak izan dira urte askotan zehar eta beste zenbait, esate baterako zaintzako lanak edota etxeko lanak emakumezkoen egokitutakoak izan dira.

2.3 ATZERRITARREN ETA BERTAKOEN EZBERDINTASUNAK

Fuentes eta Callejo (2011)-ren anaisiarekin jarraituz, eta denok sumatzen dugun bezala, desberdintasun ugari ikus daitezke atzerritarren eta bertakoen artean. Immigratzaileei eragiten dieten desberdintasunetan zentratu aurretik, ezberdintasun horien jatorria zein den aztertuko dugu.

Esate baterako, biztanleria immigratzaileari erasaten edo eragiten dion ezberdintasunetako bat, gizarte hartzaileko alor sozial eta ekonomikoan duten kokapena da (McAll, 1992; Portes y Rumbaut, 1996; Portes y Zhou, 2005, Fuentes eta Callejo (2011) zitatuak). Bestetik, bigarren eragina alor kulturean zein sozialean duten berezitasuna izango litzateke (Waters y Eschbach, 1995; Crutchfield y Pettinicchio, 2009, Fuentes eta Callejo (2011) zitatuak). Honen barnean, praktika sozialak, erlazio familiarak, elikadura-ohiturak, etab. sartuko lirateke. Beraz, ezberdintasun hauen funtzionamenduak nola eragin dezakeen talde immigratzaileei ulertzeak, talde bakoitzaren ezaugarri espezifikoak eta beraien egunerokotasunean dituzten erabilera edo praktikak analizatzea ekarriko zuen. Azkenengo blokeari dagokionez, immigratzaileei eragiten dieten ezberdintasuna, ongizate zerbitzuak eta zerbitzuak emateaz arduratzen diren agentziek dituzten funtzionamenduari dagokio batik bat (Lipsky, 1980, Fuentes eta Callejo (2011) zitatuak). Hortaz gain, arrazismoaren edo xenofobiaren ondorioz ematen diren diskriminazioak honako bloke honetan sartuko genituzke, izan ere, ekintza hauek kaltegarriak izango baitira zerbitzuetan sarbide eraginkorra eta berdina izateko (Van Dijk, 1993, Fuentes eta Callejo (2011) zitatuak).

Autoritate publikoek, biztanleria immigratzaile etniko eta kulturalki ezberdinen desberdintasun espezifikoek modu ezberdinetan ekin diote. Herrialde ezberdinetan aplikaturiko kudeaketa eredu tipiko eta ideala, asimilaziotik hasi eta multikulturalitatean amaitzea litzateke. Asimilazioa, eskubide eta aukera berdinak izateak, gizarte hartzailean adaptazio kultural eta printzipio basikoen onarpenak baldintzatzen du. Azkenik, homogeneotasun kultural handiagoa litzateke emaitza ideala. Multikulturalitateak bere aldetik, bertako herritarrekiko immigranteak gizarte hartzailean eskubide zein aukera berdinak izatea du helburu. Beti ere honek ez dezan



beraien identitate kulturala baztertzea ekartzen. Beraz, gizarte plural bat kultur eta etniei dagokienez, amaierako emaitza ideala izango litzateke.

Gaur egun, komunitate gehienak, komunitate horretan bizi diren immigranteentzako integrazio sozialeko beraien plan edo programa bat dute ezarrita. Kataluniak abian jarritako jarraibideak jarraituz egin izan dituzte, izan ere, 1993.urtean “Plan Interdepartamental de Inmigración” delakoari segituz. Ondoren etorri ziren planak 2000.urtea pasa ondoren joan ziren agertzen. Horietako plan gehienen helburua normalitatean onarrituta, berdintasun aukerak izatea zen (Martínez de Lizarrondo, 2008, Fuentes eta Callejo (2011) zitatuak) berdintasun hori lortzeko xedearekin.

Ezberdintasunetan zentratuz, hainbat daudela badakigu baina osasunean eta hezkuntzan zentratuz, gaur egun, osasun-arreta ez da berdina gizarteko herritar guztientzat, izan ere, hautagarritasun horrek soilik ez du inplikitzen horiek modu berdinean erabiltzea (Navarro y Benach, 1996, Fuentes eta Callejo (2011) zitatuak).

Espainian bizi izatearekin bakarrik automatikoki SNS-rako (*Sistema Nacional de Salud*) estaldura sarbidearen eskubidea ez izateak, egoera ezegonkorra duten pertsonentzako traba edo zailtasun bat izan daiteke.

Taula 6: Azkenengo 12 hilabeteetan nahiz era beharra izan, mediku tratamendura sarbidea izan ez duten biztanleriaren ehunekoak eta horretarako ateratako kausa.

	NO ACCEDE A TRATAMIENTO MÉDICO	CAUSA ADUCIDA PARA NO TENER ACCESO A TRATAMIENTO MÉDICO		
		INCAPACIDAD ECONÓMICA	FALTA DE TIEMPO	PREFERÍA ESPERAR
España	6,4	4,0	30,5	24,6
Resto de la UE-15	6,6	5,7	24,5	30,2
Europa del Este	8,7	7,1	42,9	14,3
Latinoamérica	8,4	13,8	53,9	13,8
África	5,0	10,0	30,0	10,0
Total	6,5	4,5	31,4	24,1

Iturria: Fuentes eta Callejo (2011)

Osasunarekin jarraituz, ondorengo taulan aztertu dezakegun bezala, herritar atzerritarrek Espainiarrak baino gehiago dira mediku tratamendua behar zutenean, zerbitzu hura jasotzera gerturatu ezin izan zirela onartzen dutenak. Atzerritarren artean, afrikarrak dira salbuespena, beharbada kulturalki osasunaren eta gaixotasunen pertzepzioa ezberdina dutelako edota osasun zerbitzua erabiltzeko modua beraien herrialdean ezberdina izan daitekeelako.

Hortaz gain, taulari erreparatzen jarraituz, baliabide ekonomikoen eta denbora gabeziak komunagoak dira atzerritarren kasuan, baita joera gutxiago dutenak itxarotera, hau da, beraien gaixotasunen sintomen eboluzio naturala ikustea baino, nahiago dute osasun zerbitzuetara joatea. Espainiarrak zein Europar Batasuneko beste herritarrak ohitura handiagoa dute itxarotera atzerritarrekin aldentuz gero.

Lehen aipatu dugun bezala, biztanleria immigranteei eragiten dieten osasun-alorreko desberdintasunak, batik bat gizarte hartzaileko bizi-baldintzekin dago lotuta, kulturalki praktika eta ohiturekin mugatuta.

Instituzionalki, osasungintzako administrazioak inongo dudarik gabe atzerritar paziente eta osasungintzan ari diren profesionalen arteko oztopoak murriztu dezakete, esate baterako hizkuntza eta kultura bitartekaritzako sistemak ezarriz, non komunikazioa erraztu dezaketen.

Baita ere, esaten dutenez, oso baliotsua da soziosanitarioko profesionalak beraien ingurune laboralean, dibertsifikazio kulturaleko gestioan formakuntza basikoa izatea. Honekin lotuta, gobernuen eskutik hainbat iniziatiba dagoeneko abian jarri dira autonomia erkidego batzuetan.

Hezkuntzara salto eginez, Espainiako hezkuntza sisteman berezko tentsio bat sumatzen da berdintasunaren eta dibertsifikazioaren edo aniztasunaren artean. Espainian dauden askotariko kultura eta hizkuntzak direla eta, behar bat sumatzen dutenez, parte-hartze bereizgarria eskatzen diote zeinbat talde, eskola edo eremu geografikoei. Gainera, tentsio hori areagotu egiten da atzerriko ikasleak gure herrialdeko eskoletara batzen edo etortzen direnean.

Núñez eta al., (2018) azaltzen dutenez, atzerritar ikasleek heziketan izan dezaketen eragozpenak edo oztopoak zenbait faktoren ondorioz izan daiteke. *“El libro Verde de la Comisión Europea-k”* (Verde, 2008, López Núñez eta al., (2018) zitatuak) dioen bezala, zenbait kausa edo zergati azpimarratzen ditu: hezkuntzaren situazio eta testuingurua. Honen barnean, zerbait faktore azaltzen ditu. Batetik hizkuntza azpimarratzen du, izan ere, irakaskuntzan erabiltzen den hizkuntza jakiteak arrakasta izan dezake baina hizkuntza hori ez jakiteak, arazo bat suposatuz dezakeela kontutan hartu behar dugu atzerriko familien zein eskolaren artean. Itxaropena ere nabarmentzen du, izan ere, hezkuntzari garrantzi handia ematen dioten familiek beraien seme-alabei laguntzeko joera izaten dute. Kasu honetan, amek eragin handia dute, esate baterako, emakumezkoen osatugabeko heziketa mailak beraiei eragiteaz gain, ondorengoei ere eragin diezaiokete, etxean sustatutakoaren arabera. Azkenik, portaera ereduak eta harrerarako komunitate edo elkartearen jarrera laguntzailea egongo litzateke (Cedeño, Martínez-Arias, Bueno, 2014, López Núñez eta al., (2018) zitatuak).

Orokorrean, atzerritar ikasleek Espainiarrekin alderatuta emaitza okerragoak izan dituzte, bai amaierako emaitzetan baita ikasleen errendimenduan ere. Datu hauek

nazioarteko ikasketen tradizio luzea berresten dute eta hemen ikus daitekeen bezala, atzerritar ikasleak nota txarrak ateratzeaz gain, batxilergotik aurrera ikasketak alde batera uzteko probabilitate handiagoa eta iraunkortasun txikiagoa zuten. Datuek diotenez, derrigorrezkoak direnak amaitzean %10ak soilik jarraitzen ditu bere ikasketak (López Peláez, 2006, Núñez eta al., (2018) zitatuak). Gainera, batxilergoan dauden atzerritarren kopurua DBH-en daudenen erdia baino gutxiagokoa da (CIDE, 2006, Núñez eta al., (2018) zitatuak). Baita, DBH-ko ikasketak ez gainditzeagatik, atzerritar ikasleen kontzentrazioa gizarte-bermeko programetan nahiko handia izan ohi da.

Hala ere, nahiz eta portzentai ez oso handia izan, badaude atzerritarren diren ikasleak unibertsitatera joateko joera dutenak, bai graduetara, masterretara edota doktoretzetara. Ondorengo taulan gradu, master edota doktoretzetan dauden pertsona espainiar edota atzerritarren kopurua aztertuko dugu.

Taula 7: Ikasle matrikulatuen kopurua nazionalitatearen arabera (eskualdeak) eta ikasketa eremua. 2014-2015 ikasturtea.

	Total	España	Total Extranjeros	Unión Europea	Resto de Europa	EE.UU. y Canadá	América Latina y Caribe	Norte África	Resto de África	Asia y Oceanía
Grado	1.260.526	1.208.611	51.915 (4%)	23.189	4.637	421	12.991	4.109	1.392	5.176
Master	122.882	100.255	22.627 (18%)	4.710	1.154	808	11.718	492	360	3.385
Doctorado	28.546	22.040	6.506 (23%)	1.506	262	104	3.567	200	109	758

Iturria: Núñez et al., (2018)

Aipatu dudana bezala, gradu, master eta doktoretzetan ari diren espainiar pertsonen kopurua handiagoa da atzerritarrekin alderatuta baino. Guztira graduetan esate baterako 1.260.526 pertsona direla ikus daiteke, horietatik 1.208.611 espainiarrak dira eta atzerritarrek guztira 51.915 (%4), hau da, guztiarekin alderatuz oso portzentaje txikia. Master eta doktoretzetan aldiz, atzerritarren ehunekoa guztiarekiko zertxobait handiagoa da, %18 masterretan eta %23 doktoretzetan.

Fuentes eta Callejo (2011) adituek ondo aztertu duten bezala, hezkuntzarako politikak diseinatu dituzten erantzule edo arduradunak berdintasunerako helburuen zein dibertsitate kulturalaren artean oreka bat aurkitu behar izan dute. Lehenengo hezkuntza-araua “LOGSE”(Espainiako Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorren Lege Organikoa) izan zen, non bertan arrazoi etnikoen edo kulturalen diskriminazioaren kontra egiteko beharra zegoela azaltzen zen (Terrén, 2001, Fuentes eta Callejo (2011) zitatuak), baina hortaz gain, lege honek, desberdintasunak konpentsatzeko sistema bat eraikitzeke asmoa zuen, beti ere desabantaila zuten ikasleen kontrako egitura paraleloak erabili gabe (Grañeras et al., 1997, Fuentes eta Callejo (2011) zitatuak).



Gainera, ikastetxeetan ikasleen bidezko banaketa mesedegarria izateko, autonomia erkidego gehienak ikastetxeetarako sarreretarako hainbat neurri arautzaile jarri izan dituzte abian (Alegre, 2008; Beni- to y González, 2007, Fuentes eta Callejo (2011) zitatuak).

Nahiz eta dibertsitate edo aniztasun hori egokitu ahal izateko ahaleginak egin diren, autore batzuk diotenez, praktika hezigarria oraindik ere kulturartekoa baino integratzailea baita. Ondorioz, praktika hezitzaile eta pluralismo kulturalaren diskurtsoaren artean distantzia nahiko handia baitago. Izan ere, nahiz eta saiatu, oraindik ere irakasle oso gutxi sartu dituzte beraien plangintzan kulturarteko hezkuntza praktikak eta eskualde batzuetan gainera atzerritarrak presio pean egon ohi izan dira herrialde hartzaileko kulturara edota hizkuntzara egokitzeko (Garreta, 2006, Fuentes eta Callejo (2011) zitatuak).


2.4 IMMIGRAZIOA EUSKAL HERRIAN

Aurretik azaldutako guztia Espainian zentratzen zela ikusirik, orain Euskal Herrian zentratuko gara eta bertan immigrazioaren egoera nolakoa den aztertuko dugu. De Valderrama (2008) -k dioenez, Euskal Herria beti izan ohi da fluxu migratzaileak izan dituen herrialde bat. Izan ere, aurreko mendean Euskal Herriko jende askok hego zein erdialdeko amerikara emigratzen zuten. Gainera, Euskal Herriko alboko probintzietara etortzeko joera egon baitzen (Errioxa, Nafarroa, Kantabria eta Burgos) industrializazioa zela eta. Beraz, 1910.urteetik hasi eta 1981.urtera arte, Euskal Herria emigratzailea izatetik herrialde immigratzailea izatera pasatu zen.

Euskal Herriarentzat 80ko hamarkada zein 90.hamarkada (nahiz eta neurri txikiagoan) oso esanguratsuak izan ziren, izan ere, biztanleria asko galdu baitzuten; lehenago etorri ziren emigratzaileak hogeitahi, hogeitahi hamar edota berrogei urte pasa ondoren, berriz ere beraien jatorrira bueltatu zirelako.

2000.urtera arte, Euskal Herriko fluxu migrazioak negatiboak izan dira, hau da, Euskal Herriatik irtetetzen ziren pertsona kopurua handiagoa zen bertara iristen zirenak baino. Egia da, 2001-2006 urte bitartean saldo migratzaileak positiboak izan zirela, izan ere, 80.hamarkadatik lehenengo aldiz gertatzen zen. Baina, INE-ko datuak azalarazi zutenenez, denbora tarte honetan Euskal Herriko barneko saldo migratzailea negatiboa izan zen, batik bat, 22.477 pertsona gutxiago, hau da, lehen aipatu bezala, pertsona gehiago zirelako Euskal Herriatik beste autonomia erkidego batzuetara joaten zirenak, Espainiatik bertara etortzen zirenak baino. Baina hala ere, esan beharra dago, 2001.urteetik aurrera, orokorrean Euskal Herrian saldo migratzaile positiboa zein gorakorra zegoela.


Irudia 5: XX. ETA XXI. mendeetako Euskal Autonomia Erkidegoko saldo migratzaileak.



Iturria: De Valderrama (2008)

Aipatu dugun bezala, Espainian fluxu migratzaile esanguratsuenak batik bat 2000.urtetik aurrera izan ziren. Nahiz eta 90.hamarkadan atzerritarren etorrera handia izan zen, 2000.urtetik aurrera nabaritu zen atzerritarren ugaritasuna. Aldiz Euskal Herrian urte bat beranduago emango zen igoera hau.

Irudia 6: Euskal Herriko eta Espainiako egoiliarren eboluzioa. 1998-2007



Iturria: De Valderrama (2008)

Bestalde, datu absolutuetan zentratuz, Espainiako eta Euskal Herriko datuak konparatuko ditugu ondorengo grafikoak azaltzen digunari erreparatuz. Ikus daitekeen bezala, Espainian 2003.urtean izan ziren atzerritar gehien sartu ziren urtea. Urteak pasa ahala, 2005.urtean berriz ere situazio bera ematen da baina hortik aurrera egoera nahiko beherakorra dela aipatu beharko genuke.

Euskal Herriaren kasuan, bi urte beranduago eman zen igoera hori, hau da, 2005.urtean. Espainiaren kasuan ez bezala, urteak aurrera zihoazen heinean, atzerritarren kopuruaren jaitsiera baxuagoa zen Estatuan baino eta honek Euskal Herriari indarra eman zion zentro hartzaile bezala, izan ere beste autonomia erkidego zein udalak oso aseak baitzeuden.


Geroz eta atzerritar gehiago Euskal Herrian metatzeak eta atzerritarren kopuruaren igoerak, Espainiar estatuko autonomia erkidegoetan, esate baterako, Madril edo Andaluzian zegoen metaketa baten ondorioa baitzen. Izan ere, atzerritar askok immigrazio gutxiago (Euskal Herria edo Gaztela-Mantxa) edota lan-eskaintza aukera gehiago (Katalunia edo Balentzia) zeuden lekuetara joaten ziren metaketa horietatik aldentuz.

Beraz, esan beharra dago, oso desberdina eta aldakorra izatearekin batera Euskal Herriko immigrazioa nahiko berantiarra izan zela Espainiarrarekin alderatuz.

Kontutan izan behar dugu, Euskal Herrian hasiera batean Europatik zetozen atzerritarrak zirela nagusi baina egoera horrek aldaketa izan zuen, %45 izatetik %29 izatera pasatu baitzen. Gaur egun aldiz, Amerikatik datozenak gehiago dira, batik bat Latinoamerikatik. Honenbestez, Euskal Herriko immigrazioaren berariazkotasuna Latinoamerikarren pisu handiagatik izan baita, aldiz Espainian, Europarren pisuagatik.



Irudia 7: Egoiliar diren atzerritarren konposizioa kontinenteen arabera. Euskal Herria (2000,2007) eta Espainia (2007)




Iturria: De Valderrama (2008)

Grafikoan ondo azaleratzen den bezala, Euskal Herriko egoera izugarri aldatu zen zazpi urteetan zehar. Lehen aipatu bezala, 2000.urtean Europarrak ziren gehiengoak baina zazpi urte pasa ondoren Amerikarren pisua izugarria izan zen. Zazpi urte lehenago Amerikarrek zuten pisua gero Europarrak hartu zuten 2007.urtean. Aldiz Euskal Herria Espainiarekin alderatuz, esan dugun bezala, Espainian Europarrak ziren nagusi nahiz eta Amerikarrak ere gertu ibili. Esate baterako, Euskal Herrian marokoarren kopurua Espainiarekin alderatuta baxua zen eta Errumaniarren kasuz aparte Europako atzerritarren kopurua asko murrizten joan zen.

Espainian bezala, Euskal Herrian ere atzerritarrak eskualde ezberdinetara sakabanatzen dira. Goierrri aldean esate baterako, Errumaniarrak bertako enpresa industrial txikietarako eskatzen zituzten; senegaldarrak aldiz, arrantzale jarduten zuten Ondarroan eta Lekeition, beti ere akordio bilateralen baldintzapean, izan ere horrela, Bizkaiko tradizioa mantentzeko aukera zutelarik. Beste kasu zehatz batzuk ere bazeuden, emakume boliviarren kasua adibidez, Getxoko zenbait familietara joaten baitziren beraien etxeak zerbitzatzera.



Irudia 8: Biztanleria atzerritarraren konposizioa kontinenteen arabera Euskal Herriko hiru lurraldeetan. 2007



Iturria: De Valderrama (2008)

Hiru probintzietan, grafiko honek adierazten digun bezala, Amerikarrak ziren nagusi, hala ere, nagusitasun hori eta erlazio numerikoak beste jatorri batzuekin alderatuz ezberdinak ziren. Araban esate baterako, Latinoamerikarren nagusitasuna txikiagoa zen eta afrikarrak aldiz bigarren talde garrantzitsuena litzateke. Egoera hau ezezaguna zen Gipuzkoan eta Bizkaian. Gipuzkoa europarren kopuru handia zuen eskualdea izan ohi zen (gehienak Errumaniarrak baina baita aurreko Europar Batasuneko zenbait kolonia ere), Bizkaia aldiz, Latinoamerikarrek zuten nagusitasuna. Beraz immigrazioari dagokionez, Araba afrikarrekin (marokoarrak batik bat), Gipuzkoa europarrekin eta Bizkaia Latinoamerikarren nagusitasun absolutuarekin espazio espezifiko eta bereizgarria osatzen zuten.

Laburbilduz, Euskal Herriko egoera immigratzailea finkapenari eta jatorriari dagokionez aniztasun handikoa izan da. Espainiaren kasua Euskal Herrikoarekin alderatuta oso ezberdina zela aipatzen joan gara baina etorkizunera begira, immigrazioak areagotzeko itxura duela ikusi ohi da. Azkenik, esan beharra dago, Euskal Herriko immigrazioak dibertsitate etnikoa dakarrela dagoeneko desberdintasun handia dagoen gizartera. Baina, nola egiten dio aurre euskal gizarteak immigrazioaren fenomenoari? Badaude batzuk kezkatuta daudenak atzerritarrek euskal identitatean edota euskal kulturaren eraginaz.

Herritarren iritzia harira, Euskal Immigrazioaren Behatokia den *Ikuspegi*-k 2004.urtean inkesta bat egitea erabaki zuen Euskal herritarrek zer iritzi zuten



immigrazioaren eta immigranteen inguruan. Hori burutu ostean, 2007.urtean argitaratu zuen bere lehen barometroa.

Ikuspegi-k 2007an formulatutako galderetako bat honakoa izan zen: *Zein da gaur egun Espainiak duen arazo nagusiarena?* Erantzunen artean, immigrazioaren arazoa ez baitzen momentu hartan gehienbat kezkatzen zitzaiena, beste gai batzuk baitziren benetan arduratzen zietenak.

Arazoen artean, %15ak soilik aipatzen zuen immigrazioa kezka bezala. Adibidez etxebizitzaren kasua (%51), langabezia (%46,8) eta ETA-ren terrorismoa (%45,8) ziren garai hartan garrantzia gehien zutenak. Esan beharra dago, Espainiarekin alderatuta Euskal Herriko immigrazioaren kezka ia erdia baino gutxiago zela (%15) Estatukoarekin alderatuta (%29,5).

Ikuspegi-k egindako inkesten arabera, ikus dezakegu nola gizartearen erantzuna hiru urteen poderioz aldatzen joan zen. Egia da Euskal Herrira etorri ziren etorkin kopuruak gora egin zuela eta horrek ere herritarrengan beste kezka bat sustatu izan zuela. *Pertzepzio edo hautemate honek zer nolako eragina izan ote du Euskaldunek immigrazioaren aurrean izan duten jarrera zein ardurei dagokienez?*



Taula 8: Euskal Herriko herritarren iritzia atzerriko immigrazioaren inguruan. 2004,2007.

Grado de acuerdo (%)	2004	2007
Sobre la diversidad cultural		
<i>Es bueno para la sociedad vasca que esté formada por diferentes culturas, etnias o religiones</i>	71	57
<i>Sus prácticas religiosas (de inmigrantes) ponen en peligro nuestro estilo de vida</i>	15	26
<i>Para ser aceptados (los inmigrantes) deberían abandonar su cultura y sus costumbres</i>	17	20
<i>Para ser aceptados (los inmigrantes) deberían abandonar partes de su religión o cultura que entren en conflicto con nuestra legislación</i>	53	57
Efectos de la inmigración sobre la identidad y cultura vasca		
<i>La llegada de personas inmigrantes extranjeras contribuirá a la pérdida de identidad vasca</i>	18	21
<i>La llegada de personas inmigrantes extranjeras frenará las aspiraciones del nacionalismo vasco</i>	18	22
<i>La llegada de personas inmigrantes extranjeras frenará el desarrollo del euskera</i>	18	26
<i>La llegada de personas inmigrantes extranjeras reducirá el uso del euskera en las zonas donde actualmente es mayoritario</i>	17	24
Efectos sobre la economía		
<i>Las personas inmigrantes permiten que la economía funcione mejor al ocupar puestos de trabajo que la población autóctona no quiere</i>	63	57
<i>Las personas inmigrantes que vienen a vivir y trabajar permiten cubrir puestos de trabajo que no se cubren con gente autóctona</i>	80	72
<i>Por lo general, la llegada de personas que vienen a vivir y trabajar perjudican más a los pobres que a los ricos</i>	66	65
<i>Por lo general, los sueldos bajan como consecuencia de la llegada de personas que vienen a vivir y trabajar</i>	40	44



Efectos sociales		
<i>Las personas inmigrantes se benefician excesivamente del sistema de protección social</i>	48	60
<i>En general, la llegada de inmigrantes afecta negativamente a la seguridad ciudadana</i>	55	54
<i>Las personas inmigrantes pagan más impuestos de lo que luego reciben</i>	7	4
Derechos y acceso a servicios: En su opinión, las personas inmigrantes deberían tener acceso en las mismas condiciones que las autóctonas a los siguientes derechos	% "Todas", sea cual sea su situación	
Asistencia sanitaria	65	63
Educación de los hijos/as	55	60
Asistencia jurídica	52	32
Ayudas sociales	34	23
Traes a la familia	30	20
Voto	23	18
Viviendas de proteccion oficial	27	15

Iturria: De Valderrama (2008)

Lehen aipatu bezala, 2004.urtean jaso ziren datuak hiru urte pasa ondoren asko aldatu izan ziren. Orokorrean datuak positiboak izan ziren. Esate baterako, Euskal herritarrentzat positiboa zen askotariko kulturak egotea eta hortaz gain immigrazioak gure ekonomian izan zezakeen eragina ere positibotzat hartzen zuten. Gutxi ziren immigrazioak kalte egiten zuela pentsatzen zutenak euskal identitate eta kulturari, baita immigratzaileek beraien ohiturei eta kulturei uko egin behar ziotela onartuak izan ahal izateko. Azkenik, Euskal herritarrak normaltzat edo gogoan hartzen zuten bai osasun laguntza baita beraien seme alaben hezkuntza ere berezko eskubide bat zela.

Egoera honek okerrera egin zuen, hau da, 2007.urtean gutxiago ziren dibertsitate kulturala defendatzen zutenak eta gehiago ziren atzerritarrak gure ohituretara egokitu behar zirenak pentsatzen zutenak. Gehiago ziren euskal herriko identitatean eta kulturalean atzerritarrek efektuak izan zezaketela pentsatzen zutenak, baita euskal ekonomian ere. Osasun eta hezkuntza arloan ere, nahiz eta denok ditugun eskubide gisa hartu, gehiago ziren beraien mesederako edo onerako erabiltzen zutela uste zutenak. Ezberdintasunak horrenbeste ziren non argi ikus zitekeen izugarrizko aldaketa eman zela hiru urte horietan zehar. Arrazoiari dagokionez, lehen esan bezala, atzerriko immigratzaileen kopuruaren igoera erreala zein irudizkoa edo imaginarioa izan daiteke.

Instituzionalki ere gobernuan zenbait politika adostu ziren. Lehenengoa 2001.urtean hauteskunde autonomikoak burutu ostean hasi zen , Euskal gobernuko IU/EB-ren



eskutik. Bertan etxebizitza eta gizarte arloko sailak egokitu ziren, non organismo berri bat sortu zen: *Dirección de Inmigración (Decreto 40/2002 de 12 de febrero)*. Lehenengo jokabidea immigrazioarekin loturiko laguntza zein aktibitate programa bat diseinatzea izan zen, non honek dekretu baten itxura hartu zuen; *Decreto 155/2002 de 25 de junio*. Hortik aurrera, immigrazioaren zuzendaritzakoak lanean aritu dira immigrazioaren inguruan. Iniziatiba asko sortu ahala joan dira diseinatzen, hau da, egunerokotasunean errealitateak inposatzen dituen beharrak aintzat hartzen.

Amaitzeko, esan beharra dago zenbait egitura joan zirela sortzen integrazioaren inguruan, batzuk aipatzekotan, honakoak ditugu:

- *Foro para la integración social de las ciudadanas y los ciudadanos inmigrantes en el País Vasco* (Decreto 200/2002 de 30 de agosto, modificado por Decreto 213/2004 de 9 de noviembre).
- *HELDU*, atzerritarrentzako arreta juridikoko zerbitzua.
- *BILTZEN*: Integrazioarako eta kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal zerbitzua
- *IKUSPEGI*, *Immigrazioaren Euskal behatokia, 2003an sortua, Euskal Unibertsitate publikoarekin egindako hitzarmen baten bidez, fluxu migratzaileen ezagutza sistematiko bat eskaintzeko.*



2.5 EUSKAL HERRIKO GAUR EGUNGO EGOERA

Gaur egunera begira, immigrazioaren egoera Euskal Herrian zein den aztertuko dugu. 2017 eta 2018 urteetan zentratuko gara batik bat. Ikuspegiko estatistikak direla eta, Jatorri atzerritarreko biztanleria aztertuko dugu bai 2017 eta bai 2018. urteetan eremu geografiko eta sexuaren arabera.

Taula 9: Jatorri atzerritarreko biztanleria EAEn eremu geografiko eta sexuaren arabera 2017. urtea

	Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	K	%	K	%	K	%
EB 25	21.695	11,0	11.685	53,9	10.010	46,1
EB28rako handitzea	16.660	8,5	8.295	49,8	8.365	50,2
Guztira EB	38.355	19,5	19.980	52,1	18.375	47,9
Europa, gainerakoa	7.599	3,9	3.403	44,8	4.196	55,2
Europa, guztira	45.954	23,4	23.383	50,9	22.571	49,1
Magreb	27.491	14,0	17.121	62,3	10.370	37,7
Afrika, gainerakoa	15.267	7,8	9.839	64,4	5.428	35,6
Afrika, guztira	42.758	21,7	26.960	63,1	15.798	36,9
AEB eta Kanada	1.748	0,9	847	48,5	901	51,5
Latinoamerika	91.756	46,7	34.543	37,6	57.213	62,4
Amerika, guztira	93.504	47,6	35.390	37,8	58.114	62,2
Txina	5.398	2,7	2.358	43,7	3.040	56,3
Pakistan	4.881	2,5	3.667	75,1	1.214	24,9
Asia, gainerakoa	3.700	1,9	1.759	47,5	1.941	52,5
Asia, guztira	13.979	7,1	7.784	55,7	6.195	44,3
Ozeania	394	0,2	215	54,6	179	45,4
Guztira	196.589	100,0	93.732	47,7	102.857	52,3

Iturria: Ikuspegi estatistikak, 2017 eta 2018. Autoreak egokitua



Taula 10: Jatorri atzerritarreko biztanleria EAEn eremu geografiko eta sexuaren arabera 2018.urtea

	Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	K	%	K	%	K	%
EB 25	21.636	10,5	11.587	53,6	10.049	46,4
EB28rako handitzea	16.890	8,2	8.476	50,2	8.414	49,8
Guztira EB	38.526	18,7	20.063	52,1	18.463	47,9
Europa, gainerakoa	8.062	3,9	3.619	44,9	4.443	55,1
Europa, guztira	46.588	22,6	23.682	50,8	22.906	49,2
Magreb	28.829	14,0	17.812	61,8	11.017	38,2
Afrika, gainerakoa	15.887	7,7	10.187	64,1	5.700	35,9
Afrika, guztira	44.716	21,7	27.999	62,6	16.717	37,4
AEB eta Kanada	1.831	0,9	883	48,2	948	51,8
Latinoamerika	98.588	47,7	37.116	37,6	61.472	62,4
Amerika, guztira	100.419	48,6	37.999	37,8	62.420	62,2
Txina	5.543	2,7	2.460	44,4	3.083	55,6
Pakistan	4.934	2,4	3.632	73,6	1.302	26,4
Asia, gainerakoa	3.924	1,9	1.880	47,9	2.044	52,1
Asia, guztira	14.401	7,0	7.972	55,4	6.429	44,6
Ozeania	406	0,2	225	55,4	181	44,6
Guztira	206.530	100,0	97.877	47,4	108.653	52,6

Iturria: Ikuspegi estatistikak, 2017 eta 2018. Autoreak egokitua

Bi grafiko hauek alderatuz, lehenik eta behin ikus genezake 2017.urtetik 2018.urtera EAE-ko biztanleria atzerritarrek gora egin zuela, hau da, 9.941 pertsona gehiago alegia. Igoera hori bai gizonezko zein emakumezkoen igoeratik eman zen. Hala ere, emakumezkoen kopurua handiagoa izan da beti gizonezkoena baino. Herrialdeetan fijatuz gero, bai 2017.urtean eta baita 2018.urtean ere, Amerikatik zetozen atzerritarrek ziren gehiengoak, Latinoamerikatik alegia, 47´6 eta 48´6 balio portzentualak dituztelarik. Honi jarraituz, Europa eta Afrika egongo ziren, Europako balioa bi urtetan handiagoa delarik baina ez dago horrenbesteko aldea. Adierazgarria da, Europatik zein Afrikatik datozenen gehiengoak gizonezkoak direla, aldiz Amerikan emakumezkoak direla gehiengoak alde nahiko handiarekin. Europako kasuan, gizonezko zein emakumezkoen aldea ez da horren adierazgarria, hau da, 2017. Urtean gizonezkoak 50´9 balio portzentuala zuten eta emakumezkoek 49´2. 2018.urtean ere antzeko zerbait gertatzen da, gizonezkoak 50´8ko balio portzentuala zuten eta emakumezkoak 49´2koa. Afrikako kasuan, bi sexuen arteko aldea askoz ere handiagoa da, hau da, 2017.urtean gizonezko eta emakumezkoen balio portzentualak 63´1 eta 38,9 ziren eta 2018.urtean ere nahiz eta igoera bat eman balio portzentualak 62´6 eta 37´4an zeuden. Amaitzeko, eboluzioan zentratuz, Amerikatik, Afrikatik eta



Europatik datozen gizon eta emakumeen kopuruan goranzko joera izan du urte batetik bestera.

Taula 11: Jatorri atzerritarreko populazioaren bilakaera EAEn, eremu geografikoaren eta sexuaren arabera. 1998-2019

Guztira	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
EB15	10.999	12.045	13.470	14.875	15.868	16.598	16.746	18.872	20.247	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*
EB25erako handitzea	*	*	*	*	*	*	*	19648	21.113	22.608	24.609	25.595	25.451	24.686	24.557	24.138	23.089	22.166	21.552	21.695	21.636	21.856
EB27rako handitzea	*	*	*	*	*	*	*	*	*	9.415	13.519	15.137	15.508	16.197	17.344	16.903	*	*	*	*	*	*
EB28rako handitzea	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	*	16.549	16.384	16.482	16.660	16.890	17.025
EB guztira	10.999	12.045	13.470	14.875	15.868	16.598	16.746	38.520	41.360	32.023	38.128	40.732	40.959	40.883	41.901	41.041	39.638	38.550	38.034	38.355	38.526	38.881
Gainerako Europa	1.463	1.449	2.104	2.721	3.694	5.340	7.168	8836	11.296	4.710	5.355	5.789	6.100	6.388	6.633	6.718	6.632	6.858	7.214	7.599	8.062	8.620
Europa, guztira	12.462	13.494	15.574	17.596	19.562	21.938	23.914	28.484	32.409	36.733	43.483	46.521	47.059	47.271	48.534	47.759	46.270	45.408	45.248	45.954	46.588	47.501
Magreb	2.275	2.529	3.239	4.286	5.730	7.044	8.589	10.161	11.152	12.371	14.487	17.776	19.978	21.664	23.850	23.733	24.353	25.536	26.599	27.491	28.829	31.017
Afrika, gainerakoa	1.256	1.442	1.792	2.257	2.775	3.355	3.970	4.743	5.260	5.764	6.968	8.526	9.687	10.754	11.859	12.135	12.470	13.518	14.526	15.267	15.887	16.517
Afrika, guztira	3.531	3.971	5.031	6.543	8.505	10.399	12.559	14.904	16.412	18.135	21.455	26.302	29.665	32.418	35.709	35.868	36.823	39.054	41.125	42.758	44.716	47.534
AEB eta Kanada	815	867	977	1.111	1.225	1.299	1.307	1.434	1.471	1.364	1.443	1.504	1.547	1.607	1.635	1.652	1.644	1.656	1.711	1.748	1.831	1.947
Latinoamerika	8.165	9.146	11.545	16.162	23.663	30.571	36.717	44.417	51.995	59.650	68.842	77.003	80.018	82.972	85.478	85.275	83.725	84.142	86.373	91.756	98.588	109.134
Amerika, guztira	8.980	10.013	12.522	17.273	24.888	31.870	38.024	45.851	53.466	61.014	70.285	78.507	81.565	84.579	87.113	86.927	85.369	85.798	88.084	93.504	100.419	111.081
Txina	402	491	758	972	1.260	1.479	1.711	2.350	2.888	3.206	3.677	4.294	4.552	4.948	5.333	5.359	5.276	5.283	5.335	5.398	5.543	5.673
Pakistan	39	39	55	86	151	261	372	682	1.016	1.201	1.468	1.641	1.945	2.876	3.816	3.971	4.281	4.793	4.841	4.881	4.934	4.995
Aisia, gainerakoa	701	775	933	1.066	1.191	1.267	1.311	1.418	1.561	1.571	1.762	2.008	2.234	2.575	2.892	3.018	3.290	3.456	3.562	3.700	3.924	4.209
Asia, guztira	1.142	1.305	1.746	2.124	2.602	3.007	3.394	4.450	5.465	5.978	6.907	7.943	8.731	10.399	12.041	12.348	12.847	13.532	13.738	13.979	14.401	14.877
Ozeania	220	239	270	287	311	315	315	339	342	336	354	364	362	372	375	381	408	405	401	394	406	425
Guztira	26.334	29.023	35.143	43.823	55.868	67.529	78.206	94.028	108.094	122.196	142.484	159.637	167.382	175.039	183.772	183.283	181.717	184.197	188.596	196.589	206.530	221.418

Iturria: Ikuspegi estatistikak, 2017 eta 2018. Autoreak egokitua

Eboluzio guztia ikusirik, hau da, 1998.urtetik 2019.urtera, argi eta garbi immigrazioak goranzko joera izan du. Goranzko joera hori batik bat Amerikatik etorri diren atzerritar kopuruagatik izan ohi da, hau da, lehen ikusi dugun bezala, Latinoamerikatik. 1998.urtean 9.000 pertsona gutxi gora behera izatetik orain 111.081 pertsona izatera pasatu da. Honi jarraituz Afrikarrak eta Europarrak egongo litzateke, Asiako eta Ozeaniako eboluzioa oso txikia izan delarik. Afrikako kasua nabarmenagoa izan dela esan genezake Europakoarekin alderatuz, hau da, 3.531 pertsona izatetik 47.534 pertsona izatera pasatu zirelako. Aldiz Europarrak, 12.462 izatetik 47.501 izatera pasatu baitziren.

Euskal Autonomia Erkidegoa osorik alde batera utzita, lurralde historikoetan zentratuko gara, hau da, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.



Taula 12: Jatorri atzerritarreko biztanleria Araban eremu geografikoaren eta sexuaren arabera 2017.urtea

	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
	K	%	K	%	K	%
EB 25	3.386	9,5	1.929	57,0	1.457	43,0
EB28rako handitzea	1.774	5,0	928	52,3	846	47,7
Guztira EB	5.160	14,5	2.857	55,4	2.303	44,6
Gainerako Europa	1.576	4,4	705	44,7	871	55,3
Europa, guztira	6.736	18,9	3.562	52,9	3.174	47,1
Magreb	8.064	22,7	4.661	57,8	3.403	42,2
Afrika, gainerakoa	3.408	9,6	1.997	58,6	1.411	41,4
Afrika, guztira	11.472	32,2	6.658	58,0	4.814	42,0
AEB eta Kanada	155	0,4	83	53,5	72	46,5
Latinoamerika	14.538	40,9	5.817	40,0	8.721	60,0
Amerika, guztira	14.693	41,3	5.900	40,2	8.793	59,8
Txina	820	2,3	326	39,8	494	60,2
Pakistan	1.461	4,1	1.053	72,1	408	27,9
Asia, gainerakoa	363	1,0	161	44,4	202	55,6
Asia, guztira	2.644	7,4	1.540	58,2	1.104	41,8
Ozeania	35	0,1	17	48,6	18	51,4
Guztira	35.580	100,0	17.677	49,7	17.903	50,3

Iturria: Ikuspegi estatistikak, 2017 eta 2018. Autoreak egokitua

Taula 13: Jatorri atzerritarreko biztanleria Araban eremu geografikoaren eta sexuaren arabera 2018.urtea

	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
	K	%	K	%	K	%
EB 25	3.341	8,9	1.888	56,5	1.453	43,5
EB28rako handitzea	1.776	4,8	934	52,6	842	47,4
Guztira EB	5.117	13,7	2.822	55,1	2.295	44,9
Gainerako Europa	1.706	4,6	753	44,1	953	55,9
Europa, guztira	6.823	18,3	3.575	52,4	3.248	47,6
Magreb	8.389	22,4	4.792	57,1	3.597	42,9
Afrika, gainerakoa	3.560	9,5	2.067	58,1	1.493	41,9
Afrika, guztira	11.949	32,0	6.859	57,4	5.090	42,6
AEB eta Kanada	169	0,5	87	51,5	82	48,5
Latinoamerika	15.665	41,9	6.303	40,2	9.362	59,8
Amerika, guztira	15.834	42,4	6.390	40,4	9.444	59,6
Txina	839	2,2	339	40,4	500	59,6
Pakistan	1.486	4,0	1.033	69,5	453	30,5
Asia, gainerakoa	412	1,1	185	44,9	227	55,1
Asia, guztira	2.737	7,3	1.557	56,9	1.180	43,1
Ozeania	38	0,1	18	47,4	20	52,6
Guztira	37.381	100,0	18.399	49,2	18.982	50,8

Iturria: Ikuspegi estatistikak, 2017 eta 2018. Autoreak egokitua



Urte batetik bestera, Arabako atzerritarren kopuruak gora egin du nahiz eta balio nahiko txikietan, hau da, orain 1.801 pertsona gehiago dira. Emakumezko zein gizonezkoen igoeragatik eman dela esan daiteke. Bi urteetan, bolumen handiena Amerikatik etorritakoak dira, hau da, 41'3 eta 42'4 balio portzentualekin. Honi jarraituz nahiko balio handiarekin ere, Afrikarrak egongo litzateke 32'2 eta 32ko balio portzentualetik. Europako, Asiako eta Ozeanikoen kopurua besteekin alderatuz oso baxua dela esan genezake. Emakumezko eta gizonezkoen kasuan, 2017.urtean, nahiz eta Amerikatik datozenak gehiengoak izan, Afrikako gizonezkoen kopurua handiagoa izan zen Amerikakoekin alderatuz gero. Emakumezkoetan aldiz, bolumen kopurua, guztirako kopuruarekin bat dator. Hala ere, Amerikako zein Afrikako gizonezkoen kopuruaren diferentzia ez da horren handia emakumezkoen arteko diferentziarekin alderatuz. Ondorioz esan genezake orokorrean Amerikatik datozen kopurua handiagoa dela guztirako kopuruan. 2018.urtean aurreko urtekoaren kasu berdina gertatzen da, hau da, Afrikako gizonezkoen kopurua handiagoa dela eta emakumezkoetan aldiz Afrikarrak direla gehiengoak.

Taula 14: Jatorri atzerritarreko biztanleria Bizkaian eremu geografikoaren eta sexuaren arabera 2017.urtea

	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
	K	%	K	%	K	%
EB 25	8.860	8,8	4.605	52,0	4.255	48,0
EB28rako handitzea	9.766	9,7	4.677	47,9	5.089	52,1
Guztira EB	18.626	18,5	9.282	49,8	9.344	50,2
Gainerako Europa	2.936	2,9	1.303	44,4	1.633	55,6
Europa, guztira	21.562	21,4	10.585	49,1	10.977	50,9
Magreb	11.029	11,0	7.300	66,2	3.729	33,8
Afrika, gainerakoa	8.598	8,5	5.769	67,1	2.829	32,9
Afrika, guztira	19.627	19,5	13.069	66,6	6.558	33,4
AEB eta Kanada	982	1,0	473	48,2	509	51,8
Latinoamerika	51.462	51,1	19.020	37,0	32.442	63,0
Amerika, guztira	52.444	52,1	19.493	37,2	32.951	62,8
Txina	3.322	3,3	1.576	47,4	1.746	52,6
Pakistan	1.331	1,3	1.089	81,8	242	18,2
Asia, gainerakoa	2.108	2,1	1.040	49,3	1.068	50,7
Asia, guztira	6.761	6,7	3.705	54,8	3.056	45,2
Ozeania	246	0,2	134	54,5	112	45,5
Guztira	100.640	100,0	46.986	46,7	53.654	53,3

Iturria: Ikuspegi estatistikak, 2017 eta 2018. Autoreak egokitua



Taula 15: Jatorri atzerritarreko biztanleria Bizkaian eremu geografikoaren eta sexuaren arabera 2018.urtea

	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
	K	%	K	%	K	%
EB 25	8.778	9,2	4.580	52,2	4.198	47,8
EB28rako handitzea	9.657	10,1	4.586	47,5	5.071	52,5
Guztira EB	18.435	19,3	9.166	49,7	9.269	50,3
Gainerako Europa	2.740	2,9	1.205	44,0	1.535	56,0
Europa, guztira	21.175	22,2	10.371	49,0	10.804	51,0
Magreb	10.320	10,8	6.844	66,3	3.476	33,7
Afrika, gainerakoa	8.315	8,7	5.620	67,6	2.695	32,4
Afrika, guztira	18.635	19,5	12.464	66,9	6.171	33,1
AEB eta Kanada	949	1,0	455	47,9	494	52,1
Latinoamerika	48.100	50,3	17.829	37,1	30.271	62,9
Amerika, guztira	49.049	51,3	18.284	37,3	30.765	62,7
Txina	3.216	3,4	1.510	47,0	1.706	53,0
Pakistan	1.246	1,3	1.028	82,5	218	17,5
Asia, gainerakoa	1.985	2,1	966	48,7	1.019	51,3
Asia, guztira	6.447	6,7	3.504	54,4	2.943	45,6
Ozeania	242	0,3	129	53,3	113	46,7
Guztira	95.548	100,0	44.752	46,8	50.796	53,2

Iturria: Ikuspegi estatistikak, 2017 eta 2018. Autoreak egokitua

Bizkaiara salto eginez, guztirako kopuruan ere gora egin duela nabarmena da, kasu honetan Araban baino gehiago, hau da, 2018.urtean 5.092 atzerriko pertsona gehiago zeuden aurreko urtearekin alderatuz gero. Igoera hori, Arabaren kasuan bezalaxe, emakumezkoen zein gizonezkoen igoeragatik izan dela antzeman daiteke. Bi urteetan, kopuru handiena Amerikarrek dute 51'3 eta 52'1ko balio portzentualekin, kasu honetan Amerikarren pisua Arabako egoerarekin alderatuz handiagoa da. Oraingoan, Amerikarrei jarraitzen dienak Europarrak dira, nahiz eta Afrikarren kopurutik nahiko gertu ibili. Gizonezko eta emakumezkoetan zentratuz, 2017 zein 2018.urteetan bi sexuetako kopuru handienak Amerikarrak dutela esan genezake, hala ere, emakumezkoen kopurua gizonezkoekin alderatuz askoz ere handiagoa da bi urteetan. Bigarren postuan, Araban gertatzen zen bezala, guztirako kopuruarekin ez dator bat, hau da, gizonezkoetan gehiengoa Amerikarrak dira baina bigarren postuan Afrikarrak daude, egia da, Afrikar eta Europarren arteko aldea oso txikia dela. Emakumezkoetan aldiz, kopuru handien eboluzioa guztirako kopuruen iguala da. Hala ere, Amerikako emakumezkoen kopurua beste bi herrialdeekin konparatuz oso handia da, hala ere, Afrikako zein Europako emakumezkoen artean nahiko alde dago, gizonezkoen kasuan ez bezala, ondorioz, guztirako kopuruetan, gehiengoa Amerikarrak izatetik, ondoren Europarrak egongo litzateke emakumezkoen kopuruan nahiko alde handia dagoelako gizonezkoen kopuruetan gertatzen denarekin alderatuz.



Taula 16: Jatorri atzerritarreko biztanleria Gipuzkoan eremu geografikoaren eta sexuaren arabera 2017.urtea

	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
	K	%	K	%	K	%
EB 25	9.531	14,6	5.176	54,3	4.355	45,7
EB28rako handitzea	5.229	8,0	2.781	53,2	2.448	46,8
Guztira EB	14.760	22,5	7.957	53,9	6.803	46,1
Gainerako Europa	3.283	5,0	1.493	45,5	1.790	54,5
Europa, guztira	18.043	27,6	9.450	52,4	8.593	47,6
Magreb	9.107	13,9	5.616	61,7	3.491	38,3
Afrika, gainerakoa	3.544	5,4	2.222	62,7	1.322	37,3
Afrika, guztira	12.651	19,3	7.838	62,0	4.813	38,0
AEB eta Kanada	644	1,0	309	48,0	335	52,0
Latinoamerika	29.118	44,5	10.897	37,4	18.221	62,6
Amerika, guztira	29.762	45,5	11.206	37,7	18.556	62,3
Txina	1.362	2,1	522	38,3	840	61,7
Pakistan	2.174	3,3	1586	73,0	588	27,0
Asia, gainerakoa	1.352	2,1	632	46,7	720	53,3
Asia, guztira	4.888	7,5	2.740	56,1	2.148	43,9
Ozeania	117	0,2	69	59,0	48	41,0
Guztira	65.461	100,0	31.303	47,8	34.158	52,2

Iturria: Ikuspegi estatistikak, 2017 eta 2018. Autoreak egokitua

Taula 17: Jatorri atzerritarreko biztanleria Gipuzkoan eremu geografikoaren eta sexuaren arabera 2018.urtea

	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
	K	%	K	%	K	%
EB 25	9.435	13,8	5.094	54,0	4.341	46,0
EB28rako handitzea	5.348	7,8	2.865	53,6	2.483	46,4
Guztira EB	14.783	21,6	7.959	53,8	6.824	46,2
Gainerako Europa	3.420	5,0	1.563	45,7	1.857	54,3
Europa, guztira	18.203	26,6	9.522	52,3	8.681	47,7
Magreb	9.411	13,7	5.720	60,8	3.691	39,2
Afrika, gainerakoa	3.729	5,4	2.351	63,0	1.378	37,0
Afrika, guztira	13.140	19,2	8.071	61,4	5.069	38,6
AEB eta Kanada	680	1,0	323	47,5	357	52,5
Latinoamerika	31.461	45,9	11.793	37,5	19.668	62,5
Amerika, guztira	32.141	46,9	12.116	37,7	20.025	62,3
Txina	1.382	2,0	545	39,4	837	60,6
Pakistan	2.117	3,1	1510	71,3	607	28,7
Asia, gainerakoa	1.404	2,0	655	46,7	749	53,3
Asia, guztira	4.903	7,2	2.710	55,3	2.193	44,7
Ozeania	122	0,2	73	59,8	49	40,2
Guztira	68.509	100,0	32.492	47,4	36.017	52,6

Iturria: Ikuspegi estatistikak, 2017 eta 2018. Autoreak egokitua.



Azkenik, Gipuzkoarekin zentratuz, hemen ere atzerritar kopuruak gora egin duela ikus genezake. Hala ere, nahiz eta Arabako igoera baino gehiago izan, Bizkaiarekin alderatuz igoera hori txikiagoa da, hau da, 3.048 pertsona gehiago izan ziren 2018.urtean. Igoera hau, beste bi kasuetan bezala emakumezko zein gizonezkoen igoeragatik eman dela esan dezakegu. Bi urteetan, aurreko bi lurralde historietan bezalaxe, Amerikarren kopurua da handiena, hau da, 45'5 eta 46,9ko balio portzentualekin. Hauei jarraituz, kasu honetan, Bizkaiaren kasuan bezalaxe, Europarrak egongo litzateke 27'6 eta 26'6ko balioekin nahiz eta ondoren Afrikarrak dauden ere nahiko pisu handiarekin. Gipuzkoan, Bizkaian bezala, lehenengo kopuru handienetik bigarren eta hirugarrenera nahiko salto handia dago, baina bigarren eta hirugarren kopuruen arteko diferentzia ez da horren handia. Sexuetan zentratuz, Araban eta Bizkaian ematen ez zen bezala, Gipuzkoako kopuruen eboluzioa guztizko kopuruen eboluzioaren berdina dira, hau da, pisu handiena Amerikarrak, ondoren Europarrak eta azkenik Afrikarrak. Kasu honetan, EAE osoa harturik gertatzen zen bezala, Amerikako emakumezkoen kopurua askoz ere handiagoa da gizonezkoekin alderatuz, Europako zein Afrikako kopuruetan zentratuz ordea, gizonezkoen kopurua handiagoa da emakumezkoena baino. Hala ere, Amerikako emakumezko zein gizonezkoen kopuruan arteko diferentzia hain da handia beste bi herrialdeekin konparatuz, orokorrean, emakumezkoen kopurua handiagoa da gizonezkoena baino.

Laburbilduz, esan genezake Euskal Autonomi Erkidegoan immigrazioak goranzko joera izan duela aurreko bi urteetan. Argi eta garbi dago Amerikarren pisua, Latinoamerikarrena alegia, izugarrikoa dela beste herrialde batzuetako kopuruak aztertuz gero, ondorioa, hizkuntzagatik hobekien egokitzen diren herrialdea izan daitekeelako izan daiteke. Hortaz gain, emakumezkoen kopurua hiru lurralde historikoetan handiagoa izan da gizonezkoena baino eta hau ere, emakume amerikarren kopurua gizonezkoekin alderatuz izugarri handia delako baita beste lurraldeetan ematen den sexuen arteko ezberdintasuna baino. Hala ere, Amerikarrez gain, Europarrak zein Afrikarrak ere beren indarra dute gure lurraldean, Bizkaian eta Gipuzkoan esate baterako Europarrak hartzen dute bigarren postua, Araban aldiz Afrikarrak egongo litzateke bigarren postu horretan. Azkenik, Asiako eta Ozeaniako pertsonak ere badaude baina beste herrialdeko pertsonekin alderatuz ez dute pisu handirik.

3. ZATI ENPIRIKOA

Zati enpirikoari dagokionez immigrazioaren inguruko zenbait gairi buruz arituko naiz. Horretarako zenbait hiztun aukeratu eta elkarrizketak egitea erabaki nuen. Lanaren amaieran eranskinetan gaineratuko dudako elkarrizketen gidoian aukitzen diren zenbait galderen artean beraien ustez immigrazioak gaur egun duen indarra, ekonomikoki zein sozialki izan dezakeen eragina, etab. aurkitzen dira. Elkarrizketa hauek burutzeko, zenbait hiztun behar nituela argi zegoen, beraz gai horren inguruan adituak direnak aurkitzeari ekin nion. SOS ARRAZAKERIAKO eta CEAR Euskadiko neskei egin nizkien zenbait galdera eta haiei egindako galderekin gai horren inguruko zenbait gauza argitzeko eta ikasteko aukera izan nuen. Bi aditu horiez gain, atzerritarra izandako beste pertsona bat ere hautatu nuen eta horri egindako galderak aldiz naiz eta ezberdinak izan, gauza askoren inguruan aritzeko aukera izan genuen eta egia esan benetan merezi izan zuen elkarrizketa bat izan zen. Azkenik, adituak edo zuzeneko esperientzia bizi izan dutenez gain, kaleko herritarrak ere hautatzeari ekin nion, hau da beste ikuspuntu bat ere jasotzea nahi nuelako. Horien artean heldu bat (50 urte inguru) eta pertsona gazteago bat hautatu nituen (22 urte).

Helburuei dagokienez, ahalik eta informazio gehien biltzea baitzen, ikuspuntu edo alde ezberdin batzuetatik begiratuta alegia. Lortzea nahi nuen horretara iritsi nintzen eta horren ondorioz lan hau egiteko erraztasuna eta motibazioa izatea lortu dut.

Ondorengo atalean zenbait galdera orokor burutu eta hiztun bakoitzak esandakoaren arabera, gai bakoitzaren inguruko informazioaren pilaketa bat egin eta bertan pertsona bakoitzaren ikuspuntua nolakoa den aztertuko dut.

a) **SOS ARRAZAKERIA eta CEAR instituzioak.**

SOS ARRAZAKERIAko parte den Nora Ugarteburuk zuzenbidea ikasi zuen eta Bruselasera joan zen praktika batzuk egitera. Bere kasua oso interesgarria izan zela iruditzen zait. Praktika horiek, Europar kontseiluko enbaxada baten barruan ziren eta bera batik bat prentsa arloan aritu zen baita batik bat politikan. Garai horretan errefuxiatu pila bat etorri ziren eta hortaz gain, Europak Turkiarekin paktu bat egin baitzuen, hau da, Europak Turkiari ordaindu egin omen zion eta horren truke Turkiak errefuxiatu pila bati bideak itxiko zitzairen Europara emigratu ez zezaten. Norari hori dena oso gertutik bizitzea tokatu zitzaion eta kontzientzia bat landu zuela bertan azaltzen zidan.

Berak ateratzen zuen konklusioa, errefuxiatu horiek ez genituela pertsona bezala ikusten zen, hau da, oso gizatasun gutxirekin. Berak ez zuen ulertzen nola uzten zitzairen ehundaka pertsona itsasoan hiltzen, edota Grezia eta Europar ekialdean zeuden kanpamendu eta kontzentrazio kanpo bezalakoetan bizitzen uzten.



Ondorioz, Euskal Herrira bueltatu zenean, SOS ARRAZAKERIA-rekin kontaktuan jartzea erabaki zuen, izan ere, lan asko zegoela egiteko iruditu zitzaiolako. Hasiera batean bolondres bezala hasi zen lanean baina denbora pasa ahala, Debagoienan lanpostu bat atera zen, non batik bat aholkularitza juridikoa zein beste gauza batzuk egiteko. Bere perfilak ondo egokitzen zenez eta dagoeneko bolondres bezala jardun ostean, berari kontratatzea erabaki zuten.

SOS ARRAZAKERIA Espainia mailan federazio baten barnean dago antolatuta, hau da, hainbat daude: SOS ARRAZAKERIA Galizian, Aragoi-en, Katalunian, Madrilan, Nafarroan eta Gipuzkoan. Honen helburua, arrazagatiko diskriminazioari aurre egitea da, hau da, arrazakeriari. Noski, horren barnean milaka gauza egiten dira.

Ondoren, territorio bakoitza autonomia litzateke, beraz Gipuzkoan, Norak ezagutzen eta bertan lan egiten duena dela, berdina litzateke. 1992an sortu zen eta helburua lehen esan bezala, arrazagatiko diskriminazioari aurre egitea litzateke. Arrazagatiko diskriminazioari edo jatorrian edo erlijioan oinarritutako izan daiteke, hau da, orokorrean, diskriminazioari aurka egitea. Lehen esan bezala, milaka gauza egiten dituzte. Beraiek proiektuak funtzionatzen dute, hau da, proiektu batzuk gazteekin egiten direnak dira, eta bertan eskoletan zein beste leku batzuetan aisialdiko gauzak lantzen dira. Jendea sentsibilizatzen bideratuta dauden programak ere egiten dituzte, etorkinen inguruan dauden zurrumurruak esate baterako. Hori lantzeko, adibidez, tailerrak egiten dira.

Bizilagunekin ere zenbait gauza antolatzen dituzte, adibidez bazkariak, non hemengo jendea eta etorkinak elkartzera bideratuta dagoen. Horrek litzateke beraien linea orokorreko zenbait proiektu. Baita ere, zenbait programa, gorroto diskurtsoak esate baterako, interneten, sare sozialetan, etab. agertzen diren gorroto horiei aurre egiteko erabiltzen dira. Eta azkenik, SOS ARRAZAKERIA batez ere etorkinei arreta egiteagatik da ospetsua. Hau da, “*oficinas de información y denuncia*” delakoa esaten dena erdaraz. Hori federazio guztian egongo litzateke eta bertan aholkularitza juridikoa izango litzatekeena egiten dute. Norak ere hori egiten du. Bertan tramite administratiboak nola jarraitu behar dituzten azaltzen dute; bai paperak lortzeko, bai paperak berriztatzeko, naziotasun espainiarra lortzeko, idatziak eta abar egiten dituzte. Hori SOS-en zati bat da, baina biztanleria etorkinen artean, horregatik izango litzateke ezagunenak. Baina lehen esan bezala, beste pila bat linea dituzte zabalik. Azkenean, beraiek beren objektibo politikoa daukate, hau da, arrazakeriari aurre egitea litzatekeena eta horren barruan gauza pila bat egiten dituzte.

CEAR-en kasuan adibidez, gehien bat errefuxiatuekin egiten dute lan, bertako langile batek adierazi zidan bezala. CEAR Espainia osoan dagoen gobernuarena ez den asoziazio bat da. Bere egoitza Madrilan dauka eta delegazio ezberdinak daude Espainiako probintzia desberdinetan. Hortaz gain, CEAR Euskadi egongo litzateke, pixka bat bereizgarria dena eta bertako egoitza Bilbon dagoena. Egia da, CEAR Euskadik dituen proiektuak zertxobait ezberdinak direla CEAR orokorrekarekin alderatuz.



Batik bat asiloa eskatzen duten zein herrialderik ez duten pertsonekin (solicitantes de apatridia) egiten dute lan. Hau da, mundu mailako Estatu batek ere ez, ez diotenean herrialde horietako nazionalitatea esleitzen. Beraien kasuan, gehien bat Saharatik etorri ohi dira. Normalean, Aljeriako errefuxiatuen kanpamenduetan bizi direnak eta Euskal Herrira datozte, baina beste herrialde batzuetatik ere etorri daitezke.

Alde batetik, CEAR-en zuzeneko atentzioa izan ohi dute pertsonekin, hau da, SOS ARRAZAKERIA-ren kasuan bezala, aholkularitza juridikoa litzatekeena. Hau da, informazio orokorra ematen dute asiloa eskatzeko egin behar den prozedura guztiaren inguruan esate baterako, edota estatutuen eskaera nola egiten den herrialderik ez duten pertsona bat baldin bazara, kasuen jarraipen bat ere eramaten dute eta asiloarekin zerikusia duen edozein motako aholkularitza ere ematen dituzte.

Hortaz gain, asiloa eskatu duten pertsonak eta beraien egoera sozio-ekonomiko larria denentzat, hau da, mantentzeko errekurtsio nahikorik ez dutenak, CEAR Euskadik programa berezi bat du martxan lan eta gizarte segurantzaren ministerioaren eskutik. CEAR Euskadira egoera berezi honetan dauden zenbait pertsona iristen dira eta horren ondoren informazioa ministeriora transmititzen dute, hau da, zubi bat izango bazen bezala. Hori burutu ostean, ministerioak egoera bakoitza aztertzen du, beraien bizi maila nolakoa den aztertuz eta libre edo eskuragarri egon daitezkeen lekuak ere azertu behar izaten dituzte familia horiek jaso eta babestu ahal izateko. Egia da, programa horretan parte hartzeko, zenbait baldintza bete behar direla, hau da, asiloa eskatzen duen edozein pertsonak ezingo luke programa horretaz gozatu. Bete beharreko baldintzetako batzuk honakoak izango litzateke: Asiloa eskatuta izatea, inongo errekurtsio ekonomikorik ez duela adieraztea, Europar Batasunean daraman denbora kopurua ere aintzat hartzen da, etab. Beraz, beraiek egiten duten lana hasiera batean hori izango litzateke, pertsona horien egoera ikusi, azertu ea baldintzak bete dezaketen eta hori ikusirik, programa zertan datzan azaltzen diote.

Kasu batzuetan interesatuta egon daitezke baina beste zenbait kasuetan ez. Interesatuta egon ezker, beraiek tramitazioa ministerioarekin egiten dute eta erantzuna jaso ostean, pertsona horiei komunikatzen zaie.

Jarraian, programa hau zertan datzan azalduko dut gutxi gora behera. Beraiek adierazten duten bezala, programa hau laguntzan eta konpainian datza eta programa honen bitartez, laguntza sozio-ekonomikoa emateaz gain, geroz eta behar gehiago ikusi izan dute pertsona horiek ondo egon daitezen, arlo kulturala ere oso garrantzitsua dela, beraz laguntza hori ere ematen da.

Programa hau zuzenean ez du ministerioak zuzentzen baizik eta gobernukoak ez diren beste zenbait asoziazioen bitartez, CEAR, Gurutze Gorria, Accem, etab. Kasu honetan, CEAR da programa horretara sarbidea ematen duena eta gero, beste entitate batzuk hedatuko dira.

Programa azaltzera salto eginez, programa hau bloke bat bezala izango litzateke, hau da, ez dute laguntza ekonomikorik ematen kasu espezifikoak diren kasuei,



esate baterako alokairuarekin arazoak dituzten pertsoneri edota enplegua ez dutela aurkitzen esaten doazen pertsoneri. Programa horretan, hasierako denbora horretan behintzat, lehen esan bezala, laguntza eta konpainia bat egon behar da behar edo interes guzti horiek estaltzeko. Estimaturako denbora hori pasatu ostean, helburua, pertsona hori bere baliabideen bitartez bizitzeko gai izatea litzateke. Lan, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioen Ministerioak kasu hauetarako, zenbait egoitza ditu Espainia guztian zehar. Egoitza horiek, bi motakoak izan daitezke, batetik unibertsitateko egoitzen antzekoak izan daitezkeenak egongo litzateke, tamaina desberdinetakoak litzatekeenak, eta bestetik, etxebizitzak. Etxebizitza horiek, normalean, partekatutakoak izan ohi dira. Kasu batzuetan emakumezkoenak edo gizonetzkoenak soilik diren etxebizitzak egon daitezke.

Lehen aipaturako egoitzak ere, modu ezberdinetan egon daitezke antolatuta, lehenengo pisua familientzat esate baterako, bigarrena emakumezkoentzat, etab. Oñatin esate baterako, CEAR Euskadiren eskutik, egoitza bat dago, non bertan, ministerioko programa horretan parte hartzeko aukerarik ez zutenak dauden. CEAR Euskadiren erabaki hau, benetan behar bat zegoelako izan baitzen, hau da, nahiz eta programa horretan parte hartzeko aukerarik ez izan, benetan beharra zutela ikusi baitzuten. Hau da, pertsona horiek bertan denbora baterako egoteko aukera izan ohi dute, ministeriotik erantzun bat jaso arte. Baina Oñatiko kasu hau, ministerioko programatik at egongo litzateke. Beraz, programarekin jarraituz, ministeriotik erantzuna jasotzean, CEAR-ek familiei komunikatzen die eta lekualdaketa antolatzen da. Lekualdaketa dagokionez, nahiz eta eskaera Euskal Herrian egon, Espainiako edozein lekutara lekualdatzea tokatu diezaiokete programaz jabetu nahiz badute. Horregatik esan ohi da, programa hau piska bat zurrunda dela, izan ohi dituzte kasu batzuk, esate baterako familia batek bere seme-alaba autismoarekin zuena eta dagoeneko bi hilabete leku zehatz batean egon ostean ez zutenak arriskatu nahi beste leku batera lekualdatzea. Lehengora bueltatuz, lekualdaketa hori eman ostean, programarekin hasten dira leku zehatz horretan. Programaren lehenengo zati hau sei hilabetekoa izan ohi da eta denbora horretan, familia horrek bere ostaturik izango luke lekualdaketa eman den leku horretan, hortaz gain, oinarrizko beharrak ere instalatuta izango dituzte, garraioa ere izan ohi dute kurtsoetara joateko, etab. Behin programarekin hasten denean, laguntza ari den entitate hori, udaletxeekin kontaktuan egon ohi izaten dira batez ere erroldatzeari dagokionez, osasun txartela garaiz heltzeko, umeen eskolaratzea bermatu dezaten, etab. Guzti hau, eskualde berri horretara heltzen diren momentuan abian jartzen da normalean.

Lehen esan bezala, helburu orokorra pertsona horiek autonomia izatea izango litzateke. Kasu batzuetan, datozen pertsona horiek bertako hizkuntza ongi menperatzen dute baina beste kasu batzuetan, hizkuntza ikastea azpimarratzen dute. Lehenago aipatu ez dudana bezala, asiloa eskatzen duten pertsonenak, hasiera batean ez dute lanerako baimenik, hau da, beraiek heldu eta bost edo sei hilabete igaro daitezke, bigarren txartel gorrian esate baterako baimen hori agertu arte. Beraz, programa honekin denbora guzti horretan formazioa asko sustatzen da eta



hortaz gain lasaitasun bat ere ematen zaie lan egiteko aukera hori ez duten bitartean. Programa horretan ostean lana aurkitu edo ez, programa hori amaitzen denean, programa bertan behera gelditzen da. Zenbait ahultasun egoeratan, malgutasun maila bat ematen dute batik bat programaren bigarren zati horretan. Hau da, sei hilabete izan beharrean, beste sei luzatzeko aukera egon daiteke. Hasiera batetik ere, behar psikologikoa edo juridikoa behar badute, eskatzeko aukera dute eta hori programa guztian zehar mantentzen da.

Bigarren zati horretan, lehenengo zatiko sei hilabeteak igaro ondoren, familia horrek ministerioak emandako etxebizitza hori utzi eta beraiek aurkitutako batera joan nahi badute, normalean oso zaila izaten dute etxebizitzak alokatzea, aukera osoa dute etxebizitza aldaketa hori burutzeko, beti ere, programa barruko muga ekonomikoak gainditu gabe. Gainditu ezker, familia hori kargu egin beharko zen diferentzia hori ordaintzeaz. Etxebizitzarako laguntza horretaz gain, lehenengo fasean modu espezifikoan ematen zen laguntza hori oinarritzko beharrak estaltzeko, oraingo fasean diru kantitate bat ematen zaie hilero eta beraiek organizatu behar izango dira.

Programa honetaz gozaten duten pertsona edo familiak ezin izango dute beste laguntza publiko edo ekonomikoaz jabetu. Baina laguntza ekonomiko horiek amaitzen direnean, beste zenbait laguntza daudela azaltzen laguntzen zaie, udaletxeetan edo gobernuaren eskutik jasotzen direnak esate baterako. Denbora hori pasatzen denean, laguntza ekonomiko horiek amaitu egingo litzateke baina CEAR organizazioa gogoan izaten jarraitu dezakete edozein kontsulta edo orientazio behar izango balute beti ere denbora jakin baten barruan. Egia da, ez dela hain nabaria, pertsona bat iritsi eta programa hasten den denbora hori. Normalean pertsona iritsi eta programa hasteko denbora tarte hori hilabete eta erdi izatea espero izaten da, baina gaur egun esate baterako zortzi edo bederatzita hilabete igarotzen direla aipatzen zidan.

b) Etorkinen etorrerari buruzko joera, abantaila eta desabantailak.

Azken urteotan etorkinen etorrera handia izan dela argi dago baina SOS ARRAZAKERIAKO langileak aipatzen zidan bezala, Espainian zein Euskal Herrian arrazagatiko aniztasun kopurua zein immigrazio kopurua askoz ere txikiagoa dela Europako beste zenbait lekuekin alderatuz gero. Hortaz gain, Euskal Herrian, behintzat Gipuzkoan, industrian oso zentratuta dagoen ekonomia dugunez, askotan oso zaila dela lanpostuetara sartzea aipatzen zuen. Izan ere, oso formakuntza espezifikoa behar da. Adibidez tailer batean makina batean lan egiteko oso formatuta egon behar dela azpimarratzen zuen. Beraz beste leku batzuetan esate baterako Balentzian eta horretako lekuetan, nekazaritza gehiago aurki daitezkeela, bertan lanpostu gehiago daude kualifikazio maila oso alturik behar ez dena, horretako zonetan immigrazio gehiago dagoela izan daitezkeela uste zuen. Hala ere Euskal Herrian gora egin du. Espainian zein Euskal Herrian



immigrazio kopuru txikiagoa izatearen arrazoiagatik ere galdetu nion eta bere ustetan, adibidez Afrikatik asko emigratzen zela Frantziara zioen. Esate baterako, lehen Afrikan Frantziako koloniak ziren herrialdeetatik asko emigratzen zen Frantziara. Gainera, Afrikako leku askotan frantsesen hitz egiten da beraz, Frantsesez hitz egiten den lekuetara emigratu izan dute bertako jendeak. Eta hortaz gain, Espainia ekonomikoki ez dela izan hain indartsua besteak bezala aipatzen zidan. Espainian immigrazio asko latinoamerikarra baitago eta hori ere, bere ustetan hizkuntzagatik izan zezakeela esaten zidan. CEAR-ko langileak ere, berarekin hizketan ari nintzela, bertara gerturatzen ziren pertsona kopuru oso handia latinoamerikarra zela esaten zidan, hala ere, apatridako kasuei dagokienez, batez ere Sahara aldetik etortzen direla zioen.

Immigrazioaren kasua pixka bat alde batera utzirik, etorkin hauen beharra dagoen edo zer nolako eragina izan dezakeen inguruan aritu nintzen beste zenbait hitzuneekin. SOS ARRAZAKERIA zein CEAR-koek oso argi zuten beraien beharra dagoen ala ez azaltzerakoan, beraien ustez ez da behar kontua, hau da, alde batetik, modu objetiboan ikusi ezker, behar ekonomiko hori badagoela aipatzen zidan Norak baina lehen aipatu bezala, beraiek ez dute behar bezala ikusten, obligazio bat izango bazen bezala baizik. Hau da, eskubidea dute. Eskubidea zein zentzutan? Beraiek aukeratu duten lekuan bizitzekoa alegia. Hasiera batetik, CEAR zein SOS ARRAZAKERIAKO bi pertsonak aipatzen zuten bezala, errefuxiatuen kasuan legalizatuta dago, hau da, asiloa eskatzen duten momentuan, asilo hori tramitatua izan behar da. Gerta daiteke asilo horri ezetz esatea baina lege internazionalan adierazita dagoen bezala, asilo hori eskatzeko arrazoiak izan ezker, eman egin behar zaiela esaten zuten abokatu zein gizarte-langileak. Asiloa eskatzen dutenez gain, emigrante ekonomikoa deitzen zaienak egongo litzateke eta beraien ustetan, pertsona horiek esaten dutenarekin bat daude, hau da, hemen bizitzeko eskubidea dutela, gu geu beste leku batzuetara joaten garen bezala eta ez baitago besterik. Baina horretaz gain, beharrezkoak diren edo ez horren barruan, gure sistema hau mantentzeko ezinbestekoak direla ere azpimarratzen zuten. Hala ere, Norak planteatutako galdera hau oso interesgarria iruditu zitzaidan. Berak zioen bezala, pertsona horiek zertarako nahi ditugu, bertakoek nahi ez ditugun lanak egiteko? Hori berarentzat ere ez zitzaion oso justua iruditzen.

Nire herriko bi herritarrei immigrazioak gure herrialdean izandako ondorio positibo zein negatiboen inguruan ere aritu nintzen, herritar horietako batek, hau da gazteenak (22 urte), berarentzat ondorio positibo zein negatiboak eragin dituela gure gizartean uste du, batik bat hemengo herritarrak bere desadostasuna edo adostasuna azaleratzen dutelako. Izan ere, immigranteen etorrerak oso indar handia izan duenez, jendea geroz eta gehiago hasi dela bere ikuspuntua adierazten aipatzen zidan, horregatik puntako egoerak egon daitezkeela zioen, hau da, desadostasunean daudenak, beraien ikuspuntua argi eta garbi azaltzen dutela adostasunean daudenen bezalaxe. Bere uste apalean, ez du inoiz egoera deserorik bizi edota kulparik bota pertsona bati bere nazionalitateagatik, baina



beraren iritziz, ondorioak izan dituela aipatzen zuen, batik bat “arazo” horri erantzun bat eman behar zaiolako pentsatzen dutelako batzuk. Bigarren herritarrak (50 urte) zioenarekin jarraituz, bere ustetan ez du inongo ondoriorik izan, hau da, herritar gazteak aipatzen zuen bezala, ondorio bakarra, jendearen sensibilizazioa alde baterako edo besterakoa izan dela zioen, hau da, aldekoak zein kontrakoak. Berak aipatzen zidan bezala, bere ustez orain dela hirurogei urte eman ziren immigrazio baldintzak bai izan omen zutela inpaktua Euskal Herrian esaten zidan baina gaur egungoak ez.

Aniztasuna zein etnia eta kultura askoz osatutako gizarte bat izatea, hiztunek adierazi zidaten bezala, abantaila bat litzateke. SOS ARRAZAKERIAKO Norak zein kaleko bi herritarren ustetan, gure gizartean aniztasuna egotea oso garrantzitsua dela zioten. Batetik aberasgarria dela kultura bakoitzaren gauza positiboak jasotzea, hau da, probetxurako zerbait izan daitekeela eta beste alde batetik, eskoletan esate baterako, umeak beste herrialde batzuetako umeekin egon ezkeru pila bat ikasi dezaketela zioten, izan ere, beraien gurasoei ere pila bat erakutsi ahal dieaioketelako.

c) Gaur egungo kasurik ohikoena.

Gaur egun SOS ARRAZAKERIA-ra zein CEAR-ra kasu ezberdin pila bat iristen dira eta denak dira garrantzitsuak. Galdera hori planteatu nienean, hasiera batean, Espainian ematen diren kasu pila bat ihes egiten zaizkiela aipatzen zuten, izan ere, diskriminazio hori pasatu beharra dutela, hau da, beraiek ordaindu behar duten prezio bat izango bazen bezala hartzen duten jendea badagoela aipatzen zuten. SOS ARRAZAKERIA-ko Norak esaten zidanez, salatzerako joaten den jendea dagoeneko oso kokoteraino dagoen pertsonak baitira edota oso gaizki daudenak. Hortaz gainera, bertara gerturatzen direnak beraiekin konfiantza dutelako ere izan daitekeela zioen. Beraz beraien ofizinetara kasu asko iristen dira baina seguru dago kasu pila batena ez direla jabetzen. Kasu normalenetara salto eginez, adibidez lanpostuetan, etxeko lanetan eta abar, gehienetan emakumeak izan ohi direla zioen, asko egoera ezegonkorretan egoten baitira eta bertan esplotazio egoerak ematen dira batzuetan. Beraiek arrazismo bezala ulertzen dute, izan ere, pertsona hori bere immigratzaile kondizioaz aprobetxatzen delako. Hau da, paperak izan ezan eta ezin duenez ezer egin, gaizki tratatzeko joera egon izan da. Auzoko edo aldamenekoen arteko gatazkak ere ematen direla zioen. Hasieran zaratagatik izan daitekeela baina azkenean irain arrazistekin amaitzen dela egoera esaten zidan, adibidez “vete a tu país” delakoak esaten. Arrazismo instituzionalak ere jasotzen dituzte, adibidez, guardia zibilaren edo poliziaren aldetik, ez direla gehiengoak baina kasu hauek ere ematen direla aipatzen zidan. Eta asko ematen den kasu bat, etxebizitzara sarbidean eman ohi da. Esate baterako, salaketa asko jasotzen dituzte ez dituztelako pisuak alokatzen eta horren harira zenbait frogak,



etab. egin dituzte ikusteko ea egia den eta hain zuzen ere zailagoa da etxebizitza bat lortzea etorkina bazara hemengoa izanda baino.

CEAR-en kasuan, ezberdina da, izan ere, bertara doazen pertsonak batik bat asiloa eskatzera joaten direnak baitira. Berak aipatzen zidan bezala, programan zehar erroldatzearen edota osasun txartelarekin zenbait arazo egon ohi izan dira. Hala ere, Norak azaltzen zidan bezala, etxebizitzaren egoera oso gai indartsua dela zioen Euskal Herrian. Izan ere, beraien programan ematen den diru laguntza etxebizitza sarbiderako berdina izan ohi da Euskal Herrian eta Espainian baina berak aipatzen zidan bezala, etxebizitzako alokairuak ez dira berdinak Estatu guztian, beraz kasu batzuetan diru laguntza horiek ez die balio etxebizitzako alokairua ordaintzeko. Hortaz gain ere, gizartean ezjakintasuna ere badagoela zioen eta hortan eguneratuta egon behar garela azpimarratzen zuen. Hau da, kasuetako bat aipatzen zidan, banketxeetan esate baterako gertatu zaiela edoniz pertsona bat asiloa eskatuta duela eta paper horiekin joan kontu bat zabaltzea nahi duelako eta bertakoak dokumentazio hori ezagutu ezean, ezinezkoa dela esan. Kasu horretan, berak aipatzen zidan bezala, pertsona horrek informazio hori jakin beharrean dago, legezkoa baita asiloa eskatu duen pertsona horri dokumentazio horrekin kontu bat zabaltzea.

d) Atzerritarren ohiturak eta gure ohiturak.

Herrialde ezberdinetako pertsona orok ohitura ezberdinak ditugu eta ohitura horiek aldatzea batzuetan zaila izan ohi da. Argi dago, gure inguruetara datozen atzerritar gehienek ohiturak ez direla gure ohituren berdinak eta batzuetan gora beherak egon daitezke. Herriko biztanleei ea atzerritarrak beraien kultura, ohitura, eta abar, alde batera utzi behar duten galdetu nien hemen onartuak izan ahal izateko. Bien erantzuna ezezkoa izan zen baina beste aldetik ere hona adaptatu behar direla aipatzen zuten. Horretarako, gazteenak esaten zidan bezala, guk ere hemen lagundu egin behar diegu baina horrek ez du esan nahi beraiek beren ohiturak alde batera utzi behar dutenik, azaltzen zuen. Gazteenak zioenez, bi kultura ezberdin baldin badira, onartu beharra dago desberdinak direla baina adaptatu egin behar garela eta horretarako, ongi eramateko ikuspuntua zabaldu egin beharko dela aipatzen zuen, bestela zaila izango dela azpimarratzen zuen.

Zaharrenak ere antzeko zerbait esaten zidan, hau da bere ustetan ez dute beraien kultura osoa laga behar baina oso finak izan behar dutela zioen. Hau da, berak zioen bezala, berari berdin dio pertsona immigratzaile hori Albecetekoa edo Kongokoa den baina hona etortzen den pertsona bat integratzeko asmoarekin etorri behar duela esaten zidan eta badaki bere kultura edo bere herria lagatzen duenean beste zerbait topatuko duela. Beraz hori errespetatu eta onartu egin behar dutela azaltzen zuen. Baina hortaz gain, atzerritar horrek ez daukala zertan bere kultura galdu beharrik aipatzen zuen baina onartu behar dutena, hemen hainbat



gauza ez ditugula onartzen baita. Adibidez emakumearekiko jarrera, elkarrizketa egin nioneko aurreko egunean ikusi zuen kasua kontatzen zidan, hemen Elgetako kale batean, Pakistandar bikote bat zioan eta gizona aurrean zihoala ikusten zuen eta lau metrora atzetik emakumea. Hori bere ustetan ez da kasualitate bat, hori beraien ohitura bat dela eta berari hori ez zaiola gustatzen adierazi zidan. Izan ere, horrek diferentzia bat badagoela adierazten duela zioen, hau da, emakumearen gainetik gizonezko bat dagoela argi ikusten da eta hori ez baitu onartzen. Edo esate baterako, aipatzen zidan, oso kaltegarriak izan daitezkeenak emakumearentzako, ablazioa edo erauzketa adibidez. Badira hainbat gauza ezin direnak onartu gure gizartean, esaten zidan. Beste kasuetako bat esate baterako, berak ez du onartzen burka bat kalean ikustea. Agian emakume hori gustora joango dela azpimarratzen zuen, baina ez duela onartzen zioen, ez zaiola gustatzen. Berarentzako hori emakumearen aurkako zerbait dela uste du eta ez zaio gustatzen. Beraz, berak azaltzen zidan bezala, immigranteak hona datozenean, nolabait esateko, sakrifizio bat egin beharrean egongo direla eta guri gustatzen ez zaizkigun hainbat gauza alde batera utzi beharko dituztela jakin beharko dutela kontatzen zidan. Pertsona horrek hori onartzen ez badu, beraren ustez, integrazioa zaila izango dela zioen. Baina horrek uste du ez duela esan nahi beraien kulturari uko egin behar diotenik.

e) **Erretxazoa eta diskriminazioa. Arrazoiak**

Gure gizartean erretxazo eta diskriminazioa oraindik ikus daitekeela esan genezake. SOS ARRAZAKERIA-an lan egiten duen pertsonaren esanetan, arrazakeria adibidez, sistema bat bezala ikusten dela aipatzen zuen. Hau da, sistema horretan, zuriak (europarrak, amerikarrak), nahiz eta amerikar guztiak zuriak ez izan, goian egongo litzateke. Beraz, atzetik datorren sistema hori hemen gelditu dela zioen, hau da, garai post kolonial honetan mundua ekonomikoki eta abar estrukturatuta gelditu dela, non zuriak goian dauden eta zuria ez baldin bazara, zailagoa dela ditugun diskriminazio estruktural horiei aurre egitea. Esate baterako, lan bat aurkitzerako orduan zailagoa izan ohi dutela aipatzen zuen eta hortaz gain, “Surglobal” delako immigrazio asko dagoela esaten zidan, non beheko herrialdeetatik goikoetara ematen dena alegia. Amerika hegoaldetik, Amerika iparraldera edo Europara eta Afrikatik Europara esate baterako, beraz, hor zailtasun estruktural askorekin aurkitzen direla azpimarratzen zidan. Adibidez, paperak lortzea oso zaila dela edota paperak izan ezker lana aurkitzea, etxebizitzara sarbidea, etab. oso nekeza dela izendatzen zuen.

Beraz orokorrean, sistema bat ikus daitekeela aipatzen zuen non zuria izateagatik gauzak errazagoak diren eta hainbat diskriminazio aurkitzen dituzten zuria izan ezean. Hortaz gain, argi eta garbi aipatzen zuen, diskriminazio soziala arraza guztietan dagoela. Hau da, arraza bereko talde ezberdinetan, batak besteari aurreiritziekin begiratzea esate baterako. Hori azken finean, beti eman izan den



egoera bat dela uste zuten Norak. Hala ere, diskriminazio hori ematen denean, boterean dagoen taldetik, kasu honetan zuriak izango litzatekeenak, besteengan, estruktura batetan finkatuta dagoela zioen, non horrek ere diskriminatu egiten duen, beraz, min gehiago egiten duela azpimarratzen zuen.

Nire herriko herritarrek arrazismoa egotearen arrazoia ematerako orduan, Norak emandakoaren zertxobait ezberdina dela aipatu beharra daukat. Beraien ustetan, kultura falta edo mentalitate itxia dutelako baita eta atzerakada hori ematen dion pertsona horiei begiak zabaltzea falta zaiela aipatzen zuen batek. Beldur horiek, oinarririk ez duten pertsonak baitute, aipatzen zuen. Hortaz gain, herritarretako batek aipatzen zidanez, batzuetan kulpa gauza batzuei botatzen die edo errudunak aurkitzen saiatzen dira. Esate baterako, herrialdean langabezia egon ohi bada, gai horretaz arduratzen denei kulpa bota ezean, batzuk atzerritarrei botatzen diela errua esaten zuen, hau da, errazagoa delako. Edota, lapurketaren bat egon baldin bada eta atzerritarrak izan badira, horrekin justifikatzen direla zioen eta horren ondorioz, pertsona horiek atzerritar edo immigrante horien baino gehiago direla uste dutelako dela esaten zuen, hau da, eskubide gehiago dutelako.

Lapurretak aipatu ditudanez, horren harira, prentsan ematen den diskriminazioa aipatzea gustatuko litzaidake. SOS ARRAZAKERIA-k adibidez, hortan lan egiten du. Hau da, prentsan ari direnak begirada kritiko bat jartzeko helburuarekin aritzen dira, xenofobia edo zurrumurru horiek ez sustatzeko beraien idazteko moduan alegia. Adibidez, Norak azpimarratzen zuen bezalaxe, ez da beharrezkoa pertsona bat zein nazionalitatekoa den adieraztea ez baldin bada notizia horrentzat garrantzitsua. Noraz gain, kaleko herritar batek ere aipatzen zidanez, berari geroz eta gehiago deitzen dio atentzioa nola idazten den prentsan. Esate baterako, ez dakit ohartzen zareten, Donostian eman zen kasuaz, hau da, GU diskoteka kanpoan eman zen istiluaz. Herritar honek, istilu hau eman zenean, bi aldizkari hartzea eta informazioa ematerako orduan, ezberdintasunik zegoen ala ez ikustea nahi zuen. Bi aldizkariak, Euskal Herriko aldizkariak baitziren. Horietako batean istilu bat egon zela adierazten zuen, non lagun talde batek beste mutil bat zauritu zutela. Bestean aldiz, nazionalitate ezberdinetako lagun talde batek mutil bat zauritu zutela adierazten zuela aipatzen zidan. Berak esaten zuen bezala, datu horrekin dagoeneko zurrumurru, diskriminazio edo xenofobia hori sustatzen ari zirela zioen, eta kasu horretan datu hori ez zela ezinbestekoa aipatzen zidan. Bere ustetan, Noraren kasuan bezalaxe, lan asko dagoela egiteko azpimarratzen zuen.

Erretxazoa edo diskriminazio hori egon badagoela argi dago baina kasu batzuetan beste batzuetan baino gehiago ikusi ohi da. Miguel-en kasua esate baterako ezberdina litzateke. Berez Ukrainan jaiotakoa da baina Ukrainatik Argentinara emigratu zuten bera gaztea zenean. Berak Argentinan suerte asko izan zuen eta ikasteko aukerak izan zituen. Frigorista ikasi zuen eta horrekin han lan egiteko aukerak izan zituen. Bere aita Euskal Herrira lan bila etorri zenean, uda batean aitak Migueli Euskal Herria ezagutu behar zuela esan eta hona gerturako baitzen. Hasiera batean, bere asmoa berriz ere Argentinara bueltatzea zen baina



horrenbeste gustatu zitzaion eta lan bat aurkitzeko aukera izan zuenez, bertan gelditzea erabaki zuen. Kasualitatez, bere aitak herri txiki bateko aire girotu, ekipamendu eta instalazioan aritzen diren enpresa txiki bateko nagusia ezagutzen zuen eta justu momentu hartan jende beharra zutenez eta berak frigorista ikasketak zituen, suerte handia izan zuela aipatzen zidan. Berari paperak egitea nahiko kostatu zitzaion baina bere esanetan, enpresa horretako nagusiak asko lagundu ziola esaten zidan. Hortaz gain, berak Argentinako nazionalitatea zuenez, gauzak asko erraztu zitzaizkion.

Bera herrialde batetik bestera ibilitakoa izanda arrazismo egoerarik bizi izan zuen galdetu nion eta bere esanetan, hori probokatzen ez duenak ez duela horrelako egoerarik bizi izango aipatzen zidan. Immigrantea den pertsona hori soziala baldin bada pertsona guztiekin eta integratzeko gogoia baldin badu zaila dela horrelako egoera batetatik pasatzea esaten zuen. Bere ustetan, gogo hori izan ezker, bertako jendeak hori antzeman egiten duela eta normalean pertsonak laguntzeko joera izaten dutela eta ez diskriminatzea esaten zuen. Miguelek, gai hau oso kuriozoso dela esaten zuen, jende askok diskriminazio hori ematen dela uste duela baina bere ustetan ez da horrela gertatzen. Hau da, berak ez baitu inongo arazorik izan inoiz, ez arrazakeriarik ezta beste inongo antzeko gauzarik. Egia da, asko entzun izan duela atzerritarren ahotan arrazistak direla Euskal edo Espainiar jendea baina bere esanetan, herrialde guztietan berdina gertatzen dela aipatzen zuen, hau da, herrialdekoak bertakoak onenak direla pentsatzen dutela eta atzerritik datozenak beraiek baino gutxiago direla sentitzen dutela. Bere esperientziaren arabera, Europa zein beste kontinente batzuetatik ibili ostean, bere ustez herrialde bakoitzak beraiek direla onenak uste dute, batik bat, Ukraina, Errusia eta Bielorrusia, hau da, lehen sobietarrak zirenak, nola pentsatzen duten sinestezina dela esaten zidan. Adibidez, ume bati txikitatik bera onena dela esaten diotela zioen eta hori astakeria bat dela aipatzen zuen.

Hortaz gain, arrazismoa edota diskriminazio hori nazionalitatearen araberako zenik pentsatzen zuen ere galdetu nion, hau da, kolore zuria izategatik diskriminazio gutxiago bizi dezakeen besteak baino. Bere ustetan ez, hau da, ez badu integratzeko gogorik hori gerta dakiokela aipatzen zuen, hau da, kanpotik dena ikusten baita. Gaur egun bere familia osoarekin bizi dela esaten zidan eta bere familiako inori horrelako ezer ez zaiola gertatu zioen, hortaz gain ere beste zenbait lagun dituela eta oso egoera onean eta inongo arazorik gabe integratu direla ere azpimarratzen zuen. Egia da, berak ere ezagutzen dituela egoera deseroso horiek bizi izan dituen pertsonak baina bere ustetan ez baita bertako jendearen erruz. Egoera horiek ere gerta daitezkeela aipatzen zuen, beti baitago buru itxia dituzten pertsonak baina orokorrean hitz egin ezker zaila dela zioen. Hau da, buru gabeko pertsonak edonon daudela, Ukrainan, Argentinan, Espainian, etab. Beraz, bere esanetan, pertsonaren arabera baita, hau da, norberak esfortzu bat egin behar duela beste gizarte batean integratzeko eta bizimodu egoki bat eramateko.



Aldiz arrazismoak eta diskriminazioak nazionalitatearekin duen loturaz ere aritu nintzen. Arrazismoa nazionalitatearekin erlazioa duela orokortzea piska bat gehiegi litzateke baina egia da zenbait hiztunen esanetan hori gertatu daitekeela diote. Esate baterako, batzuetan nik neure buruari arrazakeria hori kolorearekin zer ikusia duela aipatzen nion, izan ere, esate baterako Ukrainiako mutil batek hemen izaera zuria eta begi urdinekin duenak, beharbada Senegaldar batek baino zailtasun edo egoera deseroso gehiago bizi behar izango zituela esaten nion eta Norak seguruenik horrela izango dela esaten zidan. Hau da, lehenago aipatu dugun gizarteko sistema horren antzeko zerbait litzateke. Hala nola, arrazakeria matxismoarekin gertatzen den bezala dela aipatzen zidan, hau da, gu geu sistema baten barruan sozializatu eta hezitu gara eta horri aurre egiteko zenbait gauza egin behar direla zioen, informatu, ongi hezitu, etab.

Miguel-ekin hitz egiterakoan ere, lehenago aipatu dudan bezala, bera eta bere familiakoak ukrainiarrak izanda hemen eta Argentinan ere ez zuten inolako arrazakeria edo egoera deserosorik bizi. Horrek ez du nahi esan atzerritar guztiek ez dutela horrelako egoerarik bizitzen zeren eta Norak duen esperientziagatik argi eta garbi ikusten dugu hemen ere egoera horiek bizitzen direla. Hala ere, Miguelek, aurretik aipatu dudan bezala, bere ustetan egoera hauek ez dituenak bilatzen eta benetan integratzeko gogoia duenak, ez lukeela horrelako arazorik izan behar azpimarratzen zidan.

f) Okupazio-tasaren egoera, atzerritarren kasuan zerbitzuen sektoreko gehiengoaren eta industrian, nekazaritzan, gizezkoak gehiengoak izatearen zergatia.

Okupazio-tasari dagokionez, esan beharra dago zerbitzuen sektorea beste sektore batzuekin alderatuz okupazio tasa altuagoa duela. SOS ARRAZAKERIA-n lan egiten duen Norak zein nire herriko bi herritarrak nahiko gauza antzerako pentsatzen dute honen inguruan. Hemengo, Euskal Herriko lanpostu asko industriara baitaude enfokatuak eta oso espezifikoak dela zioten. Beste kasu batzuetan, zenbait eskola batzuk, zenbait enpresetan lan egiteko daude bideratuta, beraz eskola horietan ikasi ezean, zaila dela lanpostu horietara sarbidea azpimarratzen zuten.

Hortaz gain, beste ikuspuntu bat ere adierazten zuten, hau da, nahiz eta atzerritarrak beraien ikasketekin etorri, batzuetan ez die balio hemen lana egiteko, izan ere, batzuetan homologazioak luzeak izaten direla zioten. Espainian esate baterako, lan errazetara bideratzen dira, adibidez nekazaritzan, egia baita bertan jende asko dabilela lanean. Elgetako bi herritarrak lan prekarioak, gutxi ordaindutakoak eta beharbada bertako jendeak nahi ez dituenak direla ados zeuden, izan ere, egoera horretan zerbait azkarra nahi dutenez, edozer gauzari



heltzen diotela aipatzen zuten. Hala ere, herritarretako batek “la pescadilla que se muerde la cola” delakoa aipatzen zidan. Hau da, egoera larrian dauden pertsona horiek prestatuta egonda edo ez, edozer gauzari heltzen diote eta gero bertatik ateratzea zaila baita, hau da, pertsona bat nola hasiko den prestatzen aipatzen zidan pertsona hori lanera joan behar baldin bada. Berari, kalean galtzerdiak edo aterkiak saltzen ari diren pertsona gazte horiek atentzioa deitzen diote, hau da, beraien etorkizuna bizi guztirako horrela planteatzen omen duten galdetzen zion bere buruari. Hortaz gain, beste galdera bat ere bota zidan, zergatik ez diegun nolabaiteko aukera bat ematen, hau da, ikasteko, adibidez eskola profesionaletan sartzeko eta gauza ezberdinak ikasteko. Berak zioen bezala gauza konplikauta baita.

Industrian, nekazaritzan eta eraikuntzan esate baterako gizonezkoak gehiengo izatea, Norak azaltzen zidanez, lehen aipatu bezala, sistema honetan estruktura bat dagoelako baita. Hau da, gizonezkoak egin dituzten lanak maskulinizatuak izan baitira eta zaintzan zerikusia duten lanetan gehienbat emakumeak egon ohi direla azpimarratzen zuen. Hori lehen esan bezala, estrukturala izango litzatekeela azaltzen zuen.

Honen harira, atzerritarren etorrerak gure ekonomian ere eragina duela argi dago eta hiztunekin ere horren inguruan aritu nintzen. Ikuspuntu ezberdinak aurkitu nituen, hau da, Norak esate baterako, pertsona hauek hemen asko eman dezaketela zioen baina kasu batzuetan hemengo jendea beraien egoeraz aprobetxatzen direla zioen eta hori ez litzatekeela onargarria izan behar adierazten zuen. Kaleko herritar batek ere, atzerritarren etorrerak gure ekonomia hobetzen laguntzen duen galdetu nionean, pixka bat dena kontutan izan behar dela zioen. Hau da, pertsona horien egoera ondo analizatu behar dela aipatzen zuen, bestela, horrela gertatzen direla kontratazio ilegalak, eskulan trakifoa, esplotazio egoerak, kondizio laboral ezegokiak, etab. Berak esaten zidan bezala, pertsona horiek egoera horretan ez dute kotizatzen, ez dute gizarte-segurantzarik, etab.

Beraz, hau dena kontutan izanda, gure ekonomia ez dela hobetzen zioen, hau da, ezkutuko ekonomia gehiago dagoela esan genezake, beltzean kobratzea alegia. Kaleko herritar honek argi eta garbi esaten zuen, kulpa ez dela atzerritarrena baizik eta hortaz aprobetxatzen diren enpresaburuena. Egoera irregular horrez gain, atzerritarren etorrera noski egokia dela azpimarratzen zuen, hau da, edozein pertsona izango bazen bezalaxe, jende gehiagok ekonomia bultzatuko baitu, azaltzen zuen.

Beste herritarrak aldiz, ekonomia ez dutela okertzen aipatzen zuen. Gainera, berak zioenez, populazioa beherantz doala esaten omen dute eta jendea behar dela.

g) Osasuna eta hezkuntza, bertan ageri diren arazo garrantzitsuenak, integrazioan eta atzerritarren etorrerak gure hizkuntzan duen eragina.

Kasu askotan, irakurri eta kalean ere entzuten den bezala, atzerritarrak osasun publikoaz aprobetxatzen direla aipatzen da. Hori mito bat dela esan genezake. Norak ondo azaltzen zidan bezalaxe, horrek inongo zentzurik ez duela zioen eta honako galdera hauek planteatzen zidan: Nola da posible pertsona bat osasun publikoaz aprobetxatzea, denok baldin badaukagu bertara sarbidea edo denok erabiltzen badugu? Pertsona batek buruko mina duela asmatuko du medikoarengana joateko? Horrek ez zuela inongo zentzurik azpimarratzen zuen. Gainera, badirudi orain dela denbora batetik Espainian, paperik gabe dauden etorkinak ez dutela sarbiderik osasun publikora baina hemen Euskal Herrian Osakidetzak babes berezi bat baitu. Hemen hiru hilabete erroldatuta egonda, osasun publikoa normaltasunez erabil daiteke baina horrek ez du nahi esan, osasun publikoaz aprobetxatzen direnik. Hori Norak esaten zuen bezala, lehen esaten baitzen ingelesak etortzen zirenean hona. Baina Norak aipatzen zuenez, berak lan egiten duen pertsonekin, hau da, atzerritik hona etorri direnak bizitzera, ahal baldin badute lana egitera eta pixka bat hobeto bizitzera datoz eta medikoarengana benetan beharra dutenean joaten dira.

Hezkuntzan esate baterako, integrazio aldetik geroz eta hobeto aritu arren, oraindik lana egiteko dagoela badakigu. Hortaz gain, batzuetan arazoak dituzten umeak edota atzerritarrak izateagatik hizkuntza edota beste mailako arazoak izan ezker, sakabanatu egin ahal izan dituzte. Herritarrek zein Norak, sakabanatzearena oso erabaki okerra dela diote, hau da, egoera oso tragikoa alegia. Arazoak dituzten haurrak, atzerritarrak izan edo ez, laguntza maila berdina eman behar lioketela zioten eta baliabide horiek klasean bertan emateko aukera ere egon izan ohi da zenbait eskoletan. Sakabanatzeak, hasiera batetik haur edo gazte hori ezberdina dela erakusten duela aipatzen zuten eta hori saihestu egin behar dela zioten, hau da, lan handia dagoela egiteko aipatzen zuten.

Norak argi eta garbi adierazi zidan, hemen Euskal Herrian eskola publikoek etorkin kopuru oso handia jasotzen zutela beste itundutako edo pribatuak diren eskolak baino. Norak bere ikuspuntua argi eta garbi azaltzen zidan, hori onartezina dela zioen. Hau da, itundutako eskolek esate baterako, Eusko Jaurlaritzatik diru-laguntzak jasotzen dituztela azaltzen zidan eta beraz, moduren batean beraiek beren zentrotan aniztasuna izateko zerbaitekin egin beharko zutela adierazten zuen. Arrasate batean esate baterako izugarritzako kontzentrazioa baitago eta pertsona guzti horiek publikoan daude. Gainera, arrazismo sozial horrengatik eskola publikoak piska bat izen txarra hartzen joaten direla aipatzen zidan.

Bere ustez aniztasuna gauza positibo bat da eta umeak beste herrialde batzuetako umeekin egoten badira pila bat ikasiko dutela azpimarratzen zuen. Gainera,



gurasoei ere pila bat erakutsi ahal diezaiokete. Hori bere ustez balore positibo bat bezala hartu behar dela zioen, hala ere, txikitatik egin behar dela lana argi dagoela adierazten zuen eta adibidez bederatzi urteko pertsona bat etortzen bada eta ez badu ez euskaraz ezta erderaz ere hitz egiten, hor baliabideak jarri beharko direla zioen pertsona horri hizkuntza ikastera errazteko. Kasu honetan baliabideak ez egotean arazo bat izango litzateke baina bere ustetan eskola publikoak lanean ari direla horretan argi du. Azken finean pribatua edo itundutako eskoletako ikasleak ez direla ohitzen aniztasun horretara eta atzerriko ume bat etorri daitekeela eta erretxazo bat izan dezakeela aipatzen zuen. Baita ere, pribatua edo itundutako eskola batean, atzerritarrak diren umeekin egoten ohituta egon ezean, adibidez 22 urterekin alboan izan dezakete atzerritar pertsona bat eta ez dakitela pertsona horrekin erlazionatzen zioen. Bere ustez hori oso tragikoa da. Eskolak anitzak izan behar direla aipatzen zuen. Irakasleak formatuta egon behar direla aniztasunean ere argi zuen eta ez dago inongo dudarik erronka bat dela beraientzat, izan ere herrialde ezberdinetako umeak dituztelako, guraso askok ere ez dutelako jakingo bertako hizkuntza beraiekin ongi komunikatu ahal izateko baina dena dela posible azpimarratzen zuen eta denborarekin eta nahi izan ezker dena lortu daitekeela argi zuen.

Integrazioan, lehen esan bezala, lan asko dagoela egiteko badakigu baina hala ere, nire herriko bi herritarrei ea guk atzerritar horiek integratzerako orduan modu egokian jokatzeko dugun galdetu nienean, gazteenak, bere ustetan, egin ahal duguna baino gutxiago egiten dugula zioen, hau da, modu batean errespetatu egiten diegula baina integratzerako orduan guk parte hartu behar baldin badugu, batzuetan jendeak alde batera begiratzen duela azpimarratzen zuen. Zaharrenak aldiz, bere inguruan ikusten duenaren arabera baietz esango luke. Beste lekuetan ez dakiela baina hemen behintzat baietz esango zukeela zioen. Gai honen inguruan, bere ustetan, Euskalduna horrelakoa izan dela aipatzen zuen baina hala ere, beste aldean ere borondatea ikustea beharrezkoa dela aipatzen zuen. Herritar honek, bere inguruko kasu bat azaltzen zidan, hau da, bere lantegian gaur egun bost atzerritar daude, hiru afrikarrak eta bi latinoamerikarrak eta oso ondo moldatzen direla eta ez dagoela inongo arazorik zioen. Gainera, batek erderaz baino hobeto egiten baitu euskaraz eta bertan ikusten dela nola gogoia duten gure artean integratzeko eta gure arteko parte bat izateko ere.

Euskalduna horrelakoa izan dela horren harira, Norak ere horren inguruko bere ikuspuntua zuen. Hau da, berak ez zekien argi eta garbi esaten Euskalduna gai honetan beti izan denik sentsibilizazio handiagokoa, izan ere, beti hezi baitgara ingurune zurietan, espezifikoki hemen herri inguruetan eta ez gaudela ohituta eta piska bat espabilatu behar garela zioen zentzu horretan. Gero, zona bakoitza ere ezberdina dela argi esaten zuen, hau da, hirietan esate baterako auzo asko oso anitzak direla aipatzen zuen. Hala ere, Euskal Herriak muturreko eskuineko partidu politikoek ez dutela indarrik argi uzten zidan eta ez zekien hori indikatiboa den hemen oso arrazistak ez garela esateko zeren eta partidu horrek oso arrazistak dira eta immigrazioaren aurkakoak, baina hemen horretako partiduek exito



handirik ez dutela aipatzen zuen eta hori puntu positibo bat bezala hartu behar dela azpimarratzen zuen. Hala ere, hemen zurrumurru xenofoboak ere entzuten direla argi uzten zuen.

Integrazio horren barne, hizkuntza egongo litzateke eta argi eta garbi dago erraminta oso premiazkoa dela herrialde batean integratzerako orduan. Bai Norak zein Miguel Ukraniarrak oso argi utzi zidaten hizkuntzaren garrantzia zer nolako handia den pertsona immigratzaile batentzat. Norak, lehen esan bezala, eskoletako kasuetan, etab. aipatzen zidan, izan ere batzuetan irakasleak ahalegin handia egin behar izaten dute atzerritar gurasoekin komunikatzeko esate baterako. Aldiz Migueli, gure herrialdera moldatzerako orduan, atzerritarrak gaur egun duten zailtasun handiena zein den galdetu nionean, inongo dudarik gabe hizkuntza zela aipatu zidan. Berarentzat, lehenengo Argentinara emigratu zuenez, bertako hizkuntza ikastea izugarri zaila egin zitzaion. Beraren ustez, hizkuntza jakiteak lehen mailako garrantzia du, hau da, hizkuntza gabe ezin zara komunikatu eta komunikatu ezean zure integrazioa ia ezinezkoa litzatekeela zioen.

Hortaz gain, Miguelek inguruan ikusi dituen kasuez ere hitz egiten zidan. Bere ustez Euskal Herrira datozenak baliabide eta laguntza pila bat dituzte beraien bizitza aurrera eramateko hizkuntza ikasteko edota bizitzeko hileroko minimo bat. Baina bere esanetan, asko daude hizkuntza ikasi nahi ez dutenak eta egoera horrena aprobetxatzen direnak eta ondorioz inor baino hobeto bizi direnak. Bere ustez hori ezinezkoa da. Beraien herrialdetik ospa egin badute beste egoera hobe baten bila, esfortzu hori egin behar dutelakoan zegoen. Hau da, hileroko 500€ adibidez ematen badiote eta goizean 11ak arte lo egin eta ez badute egun guztian ezer ez egiten, egoera horretaz aprobetxatzen ari direla uste du eta egoera horiek kontrolatu egin behar direla azpimarratzen zuen. Bere ustez hemen edonork egin dezake lan, lana egin behar duela eta ahal duen ondoen integratzen saiatu behar dela zioen. Hala ere, argi eta garbi utzi zidan, kasu horiek batzuk direla bakarrik baina gaur egun ikusten diren kasuak direla aipatzen zuen.

Hizkuntzarekin jarraituz, Elgetako bi herritar hauei, ea etorkinen etorrerak gure hizkuntzan eragina izan zezakeen galdetu nien eta bien erantzuna ezezkoa izan zen. Hau da, gaur egun ematen den immigrazio mota dela eta, ez duela inongo inpakturik esaten zuten. Izan ere, orain dela urte batzuk Espainiatik etorri ziren immigrante guzti horrek gure hizkuntzan eta zenbait kultura eta ohituretan eragina izan zutela azpimarratzen zuten baina horri pixka bat buelta eman zaiola zioten. Hortaz gain, nahiz eta atzerritar asko latinoamerikarrak diren eta erdaraz egin, familia askotan gurasoek seme-alabei bertako kultura eta ohiturak sartuz gero inpaktua txikiagoa izango zela esaten zidaten. Hala ere, herritar batek zioen bezala, Bilbora joan besterik ez dagola zioen, ikusteko Bilbon ia dena erdaraz egiten dutelako. Beraz, bere ustetan, guk gure aldetik pixka bat tinkoagoak izan behar garela besteek ikasi dezaten baina berak zioen bezala, horrek ez du esan nahi erdaraz dakitelako gure hizkuntza galduko denik, baizik eta gure jarrerak egingo duela gure hizkuntza pixka bat bazter batean gelditzea.

h) Errealitateko kasu bat.

Orain dela pare bat hilabete, nire alboko herri batera Nikaraguako bi mutil agertu ziren. Gizon batekin elkartu eta lan bila zetozeela adierazi zioten. Beraiek, Turista bezala iritsi ziren Bilbora, bizi hobea baten bila. Biak oso gazteak dira eta batek bere herrialdean bere emaztea eta alaba bat utzi ditu. Herri txiki hontan gizon honekin elkartzean, berak lagun bat zuela adierazi zioten eta beharbada lan bat eman ahalko ziotela adierazi zioten. Pertsona horrekin kontaktuan jarri eta beraien egoera irregularra kontutan izanik, lan batzuk egiteko eskaini zioten, hau da, bera baserri batean bizi denez, bertako lanak egiteko prest zauden galdetu eta inongo arazorik gabe onartu zuten. Hortaz gain, pertsona honek Nikaraguako bi pertsona hauei etxebizitza bat aurkitu zioten bere bizilekuaren alboan, izan ere ez baitute kotxeko karnetik. Hasiara batean etxebizitzako alokairua, bi atzerritar horien gastuak, arropa, janaria, etab. pertsona horren eskutan geratu ziren. Etxebizitza hori aurkitu arte, bi immigrante horiek herriko gizon horren etxean bizi izan dira bi asteetan zehar eta etxebizitza hori libre geratu denean, bertara mugitu dira. Hasieran, beraien egoera oso larria zen, hau da, ez zuten ezta janaria erosteko dirurik. Beraz, pertsona honek pertsona hauei hilabetero diru bat emateaz gain beraien lanak burutzearen ordainez, etxebizitzako alokairua, arropa, eta janaria hasiera batean pertsona honen esku zeuden. Pixkanaka, erritmoa hartuz, beraiek beren hilabeteko diruarekin moldatzen joan beharko dira.

Hasiera batean, lehen esan bezala, pertsona hauek Bilboko lagun baten etxean bizi ziren eta hona etorri eta pertsona batek nola hartu zituen azaltzerakoan, egoera horretaz ezin zirela fidatu esaten zioten. Hau da, horren ordainetan zerbait txarra jasoko zutela bueltan. Bi pertsona hauek, nik dakidanez, orain momentuan oso gustura daude eta beraien familiei istorio guzti hau kontatu ostean, askoz ere lasaiago baitaude.

Bi pertsona hauek, nahiz eta turista bezala etorri, gaur egun paperik daude eta egoera honen berri jakin nuenean, Nikaraguako bi pertsona hauek zer egin behar izango duten galdetzen nion nire buruari hemen gelditzea nahi badute. Horren berri izan eta gutxira, SOS ARRAZAKERIA-ko langilearekin gelditzeko hitzordua nuen, beraz, berari galdetzea erabaki nuen.

Pertsona batek bere herrialdea utzi eta turista bezala baldin badator, hiru hilabeteko epea du hemen egoteko, hau da, bisa estandarra, turista bezala. Hiru hilabete horiek pasatzen direnean, pertsona horrek hemen gelditzea nahi badu bere herrialdeko egoera ezegonkorra delako esate baterako, hainbat tramite egin beharko ditu. Norak azaltzen zidan bezala, hori dena atzerritartasun legedian dago idatzia. Aukera ezberdinak daudela esaten zidan, gutxi baina ezberdinak. Hemen familiako kideren bat izan ezkerok, berriz elkartzeko aukerak izan zenezake, baina pentsatuz hemen ezer ere ez duen pertsona bat dela. Kasu honetan, hiru urte



itxaron beharko zituen. Bera hona etortzen denetik, hiru urte egon beharko litzateke paperik gabe, hau da, egoera administratibo irregularrean. Honekin esan nahi dena, ez duzula baimen administratiborik hemen egoteko. Beraz, egoera honetan hiru urte egon beharko litzateke pertsona hori errotze soziala (*arraigo social*) tramitatu ahal izateko, normalean modurik errazena izan ohi da hemen paperak lortu ahal izateko, hobeki esanda, biderik errazena. Hiru urte horietan ahal duen bezala bizi beharko du, lana topatu ezkeroko kontratu gabeko lana izan beharko luke eta hiru urte horiek pasa ondoren, urte beteko lan kontratu bat egiten badiote, beti ere soldata minimoa ordaintzera iritsi behar direlarik (900€ 14 pagatan) eta hori atzerritartasunean aurkeztu ezkeroko, paperak lortzeko aukera izango du, hau da, urte baterako txartela emango diote. Hori berriztatzen joan beharko du. Urte hori pasatzen denean, bi urteko txartela emango diote, beti ere lan kontratu bat aurkezten badu eta baldintza guztiak bete ezkeroko. Badago jendea ez duela lortzen lan kontratu hori berriztatzea, ondorioz hasieratik hasi beharko litzatekeela esaten zidan. Lanik izan ezean, beste baldintza pila bat betetzen baldin badira paper horiek berriztatzeko aukera izan dezake baina orokorrean ez. Hau da, lehenengo bost urteetan paperak mantendu ahal izateko, lanean egon behar da pertsona hori.

Aurrekoaren harira, bi urteko hori pasa ondoren, beste bi urteko txartela ematen dute. Hori pasatzean, bost urteko txartelera pasako ginateke. Bost urteko txartel hori lortzean, jendea erlaxatu egin daiteke, hau da, bostetik hamarrekora (iraunkorra) pasatzean ez dute lan kontraturik eskatzen. Baina horra iritsi arte, hasiera batean lana izatera lotuta dago pertsona hori. Hamar urterako txartela lortzean, iraunkorra den txartel hori alegia, urte horiek pasa ahala txartel hori berritzen joan behar da. Eta hortik nazionalitatea izatera iristeko, nazionalitate hori eskatu beharra dago, ordaindu eta hortaz gain azterketa bat egin behar izaten da. Hau da, gauza pila bat egin behar dira. Egia da ezin dutela pertsona hori bota baina nazionalitatea ez du izango. Nazionalitatea izateak, eskubide guztiak izateko aukera ematen baitu.

Hortaz gain, nik, hiru urte horiek pasata, lan bat aurkitzean, lan horretatik bota ezkeroko edo utzi ezkeroko, herrialdetik botatzeko aukera duten galdetu nion. Erantzuna baiezkoa izan zen. Norak esaten zidanez, normalean, lanetik botatzean seguraski atzerritartasunekoak ez direla enteratuko zioen baina berriztatzera doazen momentuan baldintzak ez baditu betetzen herrialdetik atera behar duela adierazi dezakete. Baldintza horiek esate baterako, zenbat denbora egon den lanean pertsona hori izan daiteke, hau da, bizitza laborala, eta hor ikusten baita zenbat denbora egon den lanean, beste kontratu bat duen edo ez, etab. Baldintzak bete ezean, ez diote pertsona horri berriztatuko eta berriztapen hori ukatzen dutela adierazten dute paper batean. Normalean hamabost eguneko denbora tarte bat ematen diote herrialdetik atera ahal izateko. Herrialdetik ez ateratzeak ez du esan nahi beraien etxeetara joango direnik eta etxetik aterako dituztenik. Baina askotan deportazio hegazkin espezifikoak antolatzen dituzte, hegazkin horiek bete eta jendea bidaltzen dute. Egia da, beste pila bat hemen gelditzen direla. Normalean ez dela gauza automatikoa izaten aipatzen zidan, baina gerta daiteke kalean



poliziak dokumentazioa eskatzea eta izan ezean kanporatze-agindua jarri dezakete eta hegazkin horiek ondorengo orduetan ateratzen badira, pertsona hori herrialdetik kanporatzea gerta daiteke, baina lehen esan bezala, posible da gertatzea baina ez da kasurik ohikoena.

Normalean, egoera horretan dauden pertsonak, autobus edo tren geltokiak saihesten dituzte bertan normalean polizia asko egoten delako dokumentazioa eskatzen. Kanporatze-agindu hori izan eta hiru hilabeteetara lana topatu ezker, atzerritartasun bulegotara joan eta lan kontratu hori erakustean, atzera bota eta kanporatze agindu hori izan duenez ea ezin dioten onartu lan kontratu hori galdetu nion nik. Oraingoan erantzuna ezezkoa izan zen, normalean atzerritartasuneko kideak ofizios kanporatze-agindu hori baliogabetu edo kendu egin beharko lukete eta finkatze hori tramitatu. Beraz orokorrean kasu hori izango litzateke ohikoena, hala ere, beste zenbait kasu daudela esan zidan, esate baterako, Espainiarra den pertsona batekin ezkondu ezker, edo seme-alabaren bat izan ezker, edota familiarreko norbait hemen izatean. Gerta daiteke ere atzerriko herrialdetik hona lan kontratuarekin etortzea, hori ere normalean kasu errazagoa izaten zen orain dela urte batzuk gaur egun baino. Baina kasu ohikoena azaldu duguna litzateke.

4. ONDORIOAK

Atzerritar zein immigrazioaren inguruko lan hau egitearen motibazioak asko izan dira. Izan ere, hasiera batean argi eta garbi nuen norekin egitea nahi nuen nire gradu amaierako lan hau eta berarengana hurbildu eta hainbat proposamen jaso nituen. Proposamen horietako asko interesgarriak iruditu zitzaizkidan, “mikroplastikoak itsasoan” esate baterako. Hala ere, lehenengo lauhilekoan kanpora nindoanez, ezin izan nuen bertan parte hartu, hasieratik zenbait hitzalditara bertaratu behar nuelako. Hori proposatu eta lana gai horren inguruan ezin nuela egin ikustean, burua lanean jarri nuen. Denbora luze batez buruari bueltak ematen aritu ondoren, immigrazioaren ideia etorri zitzaidan burura. Gaur egun eta zenbait urteen poderioz, prentsan, telebistan, albisteetan, etab. gai horren inguruan asko hitz egiten zela konturatuta nengoen eta hortaz gain, arreta deitzen zidan immigratzaileak ziren pertsona hauek nolako bizimodua zeramaten gainean. Hala ere, nire ustetan gauza askoren inguruan ezjakintasuna dugula pentsatzen nuen eta gai horren inguruan eguneratuta egotea garrantzitsua zela iruditu zitzaidan. Gainera, ezjakintasun horrek batzuetan gauzak diren bezala ez kontatzera edo epaitzera eramaten gaituela pentsatzen nuen. Hortaz gain, gertutik zenbait gauza bizi eta entzun izan ditut, bai familian, baita lagun artean ere, beraz motibazio hori sartu zitzaidan horren inguruan idazteko eta baita ikertzeko ere.

Zati teorikoan gauza ezberdinak aztertu ditut, immigrazioa zer den ikustetik, XX.mendean eta XXI.mendean eman izan den immigrazioa aztertu, mende batetik



bestera eman den eboluzioa eta azkenik XXI.mendean zentratuz, Espainia zein Euskal Herria ere aztertu ditut. XX.mendean argi eta garbi ikusi dut Espainia orokorrean herrialde emigratzaile bat zela, izan ere bertako egoera ona ez zenez, egoera hobe baten bila joaten baitzen jendea. Aldiz 70.eko hamarkadan, Espainia herrialde immigrantea izatera pasatu zen, hau da, bertakoak zirenen itzuleragatik eta baita beste nazionalitate ezberdinetako pertsonen etorreragatik.

XXI.mendean, egoerak hobera egin zuela ikus genezake, hau da, Espainiako enplegu eta ekonomiaren igoerak, egoera hobetu eta immigrazioaren igoera nabarmena izan zela ondoriozta genezake, hau da, Espainia herrialde garatuener artean jarri baitzen. Espainian nahiz eta egoera ekonomikoa hobera egin zuen, 2007.urteko krisiak nahiko gogor jo zuen Espainian eta egoera honek immigrazioaren egoera zalantzan jarri zuen. Horren ondorioa, uste dut ezjakintasuna eta benetan norbaiti bota behar zaionez kulpa, bide errazena hartzen zutela uste dut.

Bai Espainian baita Euskal Herriko immigrazioaren jatorria Latinoamerikarra dela ikusi dut batik bat, hau da, honen ondorioz hizkuntza dela esan daiteke. Hala ere, 2008.urtetik aurrera Errumaniarrak izugarritzko pixua izan zuten. Latinoamerikarren kasua, zenbait lurralde afrikarretatik Frantziara emigratzen saiatzen diren bezala, lurralde horietan frantsesa hitz egiten delako alegia, Latinoamerikarrak Espainiara etortzeko joera dute. Izan ere, hizkuntza funtsezko erreminta dela uste dut, herrialde batean integratzeko lehenik eta behin bertako pertsonekin komunikatzea eta elkar ulertzea ezinbestekoa delako.

Lan munduan sarturik, ikusi dugun bezala, haisera batean, Espainiako zein atzerriko emakumezkoen zein gizonezkoen arteko aldea ez da horren handia. Datu hauekin zenbait ondorio atera daitezke, batetik, ikus dezakegu atzerritarrek modu egokian instalatu direla eta gure bezalaxe lan bat izateko aukera dutela. Hortaz gain, sektoreak aztertu beharko lirateke eta ikusi ea zein egoeratan egiten duten lan, izan ere, badaudelako sektore batzuk bertakoek bere gain hartu nahi ez dituztenak (portuetan arrainak batzen edo arrantzara joaten direnak, pertsona nagusiak zaintzen dituztenak, etab.) eta ondorioz beraiek hartzen dituztela beraien egoera ekonomikoa hobetu nahian. Hortaz gain, atzerritarren zerbitzuetako enplegu-tasa baita atzerritarren kasuan pisu handiena duena. Hori zati enpirikoan ondo ikusi den bezala eta ondoren ere aipatuko dudana bezala, lan prekarioak direlako eta errazena aurkitzeko izan daiteke. Azken finean nahiz eta kualifikazio maila bat izan, hemen batzuetan homologazioak denbora asko irauten dute edota sinpleki hemen ez du balio kualifikazio mota horrek. Honi buelta bat eman beharko zitzaiola uste dut, hau da, kualifikazio maila bat izanik, beraien lan mundurako bidea erraztu behar dela uste dut.

Nazionalitatea eta eboluzioa alde batera utzirik, ezberdintasunetan osasuna eta hezkuntza izango genituzke. Osasun-publikoaren inguruan esaten diren astakeriak gezurrak direla ondorioztatu dut. Hau da, zenbait adituk diotenen harira hori gezurra baita. Egia da, kultura kontua izan daitekeela. Hala ere, Espainiaren kasuan SNS-rako eskubidea ez dute bertan bizi direnak, beraz horrek ezegonkortasun maila bat dagoela argi dago eta horren aurrean zerbait egin behar dela uste dut. Euskal Herrian aldiz,



osasun arloan egoera hobegoa dute paperik gabeko atzerritar hauek, hau da, hemen hiru hilabetez erroldatuta egon ostean, osasun publikoaz gozatzeko aukera dute.

Hezkuntzan ere, lan asko dagoela egiteko uste dut, hau da, nahiz eta egora pixkanaka hobetzen joan den, integrazio mailan asko egiteko dago. Hau da, nire ustez irakasleentzako erronka handi bat da nazionalitate askoko jendea izatea klasean baina tratua berdina izan behar duela uste dut, hau da, ezinezkoa iruditzen zait, atzerritarra den ume batek zailtasunak dituelako bere klasekideetatik aldentzea. Hortaz gain, adituek dioten bezala, nik ere berdina pentsatzen dut, hizkuntza beharrezkoa den erraminta bat dela. Eta nahiz eta hizkuntza hori ez menperatu, horrek ez du esan nahi baztertu behar zaienik, baizik eta bien arteko esfortzu batekin egoera hori aurrera ateratzen saiatu behar da.

Euskal Herrira salto eginez, hemen ere Estatuan bezalaxe, hasiera batean saldo migratzaileak negatiboak izan ziren baina urteen poderioz, egoera aldatzen joan zen Euskal Herriko egoerak hobera egin zuelako. Nahiz eta Euskal Herriko immigrazioaren igoera Espainiakoarena baino berantiarra izan, gure gizartea etnia eta kultura ezberdinez osatuta dagoela esan genezake eta hori oso aberasgarria dela uste dut. Hortaz gain, nahiz eta zenbait kasutan jendearentzat gai arduratsua izan, aurrera begira gauza positiboa dela iruditzen zait. Hortaz gain, nire ustez gaur egun egoera pixka bat hobetu dela esan daiteke, hobeto esanda, muturreko jarrerak daudela esan dezaket. Hau da, immigrazioaren alde edo ontzat ematen dutenak, beraien ikuspuntua argi eta garbi azaleratzen dute, kontra daudenak aldiz, oso finko adierazten dute beraien ikuspuntua. Ikusi besterik ez dago gaur egun eskuineko muturreko alderdi politikoek izan duten indarra.

Guzti honen inguruan, zenbait hitzunekin aritu naiz eta zenbait galdera egin ostean hainbat ondorio atera ditut. Hitzunen artean, SOS ARRAZAKERIA-ko langile bat, CEAR-ko beste bat, adin ezberdinetako bi herritar eta immigratzailea izandako pertsona bat daude. Ondorio batzuk ateratzekotan, nire ustez lan handia egiteko dagoela uste dut, hala ere, pixkanaka egoerak hobera egingo duela uste dut. Hitzun hauekin hitz egin ostean, ikusi dut alde batetik SOS ARRAZAKERIA-ko zein CEAR-koek izugarrizko lana egiten dutela bai paperik gabe dauden pertsonekin, asiloa eskatzen dutenekin baita apatridako kasuetan ere. Egiten duten lana uste dut benetan eskertzekoa dela. Gainera, CEAR-koak aipatzen zidan bezala, zenbait kasuetan ezjakintasuna handia dago, banketxeetako kasua aipatu dudana bezala. Hau da, nire ustez, gai honen inguruan eguneratuta egotea beharrezko da, baita epaiketa deseroso zein egiazkoak ez diren baieztapenak ez egiteko.

Euskal Herria Espainiarekin konparatuz, hemen eskulan oso kualifikatua eskatzen denez, batzuetan zaila litzateke lana aurkitzea, beraz Espainia mailan, Balentzian, etab. immigrazio kontzentrazio handiagoa dago. Egia da, gaur egun atzerritarrek oso zaila daukatela hona etorri eta lan duin eta egoki bat aurkitzea, baina beraien etorrera zerbait positibo bezala hartu behar dela uste dut. Hau da, gizarte batean aniztasuna egoteak aberastu egiten duela uste dut. Hortaz gain, beraiengan pila bat ikasi daiteke, bai kulturari baita beste zenbait arlotan ere.



Kasurik ohikoenaz aritu garenean, aipatu zizkidaten kasuak ez zitzaidan batere arraroak izan, hau da, gure inguruan asko gertatzen direla uste dut. Bai etxebizitzetako kontua, baita beraien egoeratik aprobetxatzen direnak eta ordaintzerako orduan engainatuak direnak. Guzti hori arrazismoarekin lotu dezaket, hau da, gu baino gutxiago direla pentsatzen dugulako eta egoera prekario batean daudenez, edozer onartzen dutela uste dugulako.

Diskriminazioari dagokionez, gaur egun badagoela uste dut baina nik uste dut jendea geroz eta zentzudunagoa dela eta nahiko zabalik dagoela mundura. Hala ere, diskriminazioa sistema bat bezala dela azaltzen zidaten eta guztiz ados nago, eta hemen kolorearekin ere zer ikusia duela uste dut. Sistema horretan beti ikusi baitugu zuria goiko postuan eta besteak behean, horrek ez duela batere laguntzen esan dezaket, matxismoarekin gertatzen den bezalaxe alegia. Hala ere, diskriminazio hori arrazagatikoa izan daiteke baina beste herrialde askotan etnia ezberdinen artean ere ematen dela uste dut, hau da, betidanik egon den zerbait baita. Hala ere, Miguel Ukrainiarrak esaten zuena ere arrazoia zuen, noski dagoela jendea mina egin nahian, baina atzerritarrek hona datozenean, esfortzu bat egin behar dutela integratzeko argi dago. Horrek ez du esan nahi, ez dituenik pertsonak arkituko arrazagatik edo dena delakoagatik mina egin nahi diotenak. Diskriminazio hori ere prentsan asko ikusten da eta hori oso penagarria iruditzen zait. Ez dut ulertzen, gaur egun, informazio hori baliagarria ez izanda, zertarako jarri behar den zer nazionalitatekoa den pertsona hori. Ez dute pentsatzen horrekin zurrumurru gehiago sustatzen direla? Gero zer nahi dugu, jendeak diskriminazioa alde batera uztea? Ezinezkoa da prentsan ari direnek horrenbeste indar izanda hori pizten badute. Honen inguruan asko dagoela egiteko uste dut.

Okupazio-tasa dela eta, argi eta garbi dago pertsona hauen gehiengoa zerbitzuen sektoreetan ari dela baina zenbait hiztunek adierazten zutenarekin ados nago. Zerbait egin nahi bada eta aprobetxatzen diren egoerak apurto nahi badira, formakuntza maila minimo bat eman beharko zaiela uste dut, hau da, beraiek ere aukera izan dezaten lan duin eta egoki bat izateko. Hortaz gain, industriari, eraikuntzari, etab. gizonezkoak izatea gehiengoa, argi eta garbi dago estruktura bat finkatuta dagoelako dela, hau da, lanak maskulinizatuak izan direla urte askoren poderioz, eta horri buelta ematea zaila izango dela uste dut. Ekonomiari dagokionez, nik ez dut uste pertsona hauek etortzea eta edozein gaizki ordaindutako lanetan egonda gure ekonomia hobetzen denik. Hau da, hiztun batek esaten zidanarekin ados nago, pertsona hauek ez dute gizarte-sagurantzian kotizatzen, eta jendea aprobetxatu egiten da, horrek ekonomia hobetzen laguntzen du? Nire ustez ez. Denok dugu aukera lana egiteko eta geroz eta jende gehiago egon ekonomiak ere gora egin dezakeela ados nago, baina denok kondizio egokietan eta modu egokian lan eginda. Egia da, zenbait kasuetan oso zaila dela, izan ere, paperik izan ezean, ezin dute kontraturik izan. Baina kasu horietan behintzat, esplotatuak eta engainatuak izan ez daitezela saiatu behar da.

Osasun arloan, argi uzten zidaten bezala, Euskal Herrian atzerritarrek oso egoera ona dutela uste dut Espainian ez bezala. Hau da, hiru hilabetez hemen erroldatuta egonda



osasun publikoaz gozatzeko aukera dute eta hori datu positibo bat bezala hartu behar da. Hortaz gain, osasun publikoaz aprobetxatzen direnaren kontuarekin ez nago batere ados, egia da Norak esaten zidana, pertsona batek zertarako asmatuko du buruko mina duela? Txorakeri bat dela uste dut.

Hezkuntzan alegia, lan asko egin behar dela uste dut, hau da, hezkuntza publikoak jasotzen dituen atzerritar kopurua beste ikastetxeekin alderatuz izugarritzkoa da. Itundutako ikastetxe zein probatuek inongo haur atzerritarrik ez izateak ez dut uste inongo mesederik egiten dion ez gizarteari ezta bertan dauden haurrei ere. Azken finean, leku ezberdinetako jendearekin egoten eta elkarbanatzen ikasiz gero, norberak asko ikasi dezakeela uste dut. Aldiz, horrelako pertsonekin harremanik ez dutenak gero zenbait erretxazo izan dezaketela uste dut.

Ohituretan ere lana dagoela egiteko uste dut, hau da, nire ustez atzerritik datozen pertsonak hemen integratzea nahi izanez gero, esfortzu bat ere egin behar dutelakoan nago, guk beraien herrialdean egin behar izaten dugun antzera.

Hala ere, oraindik integrazio arloan esate baterako asko dagoela egiteko uste dut, hau da, nahiz eta gu ohituta egon pertsona horiek hemen ikustera eta onartzen dugun, benetan integratzerako orduan norberari egitea tokatzen bazaio, kasu batzuetan beste aldera begiratzen dugula uste dut.

Euskal Herria gai honen inguruan beti izan dela sentsibleagoa esan izan da, gerta daiteke, lehen aipatu bezala, eskuineko muturreko alderdi horiek horrenbeste indar ez izateak, immigrazioaren aurkakoak ez izatea suposatu dezakeela, izan ere alderdi horiek immigrazioaren guztiz aurkakoak baitira, hala ere, sentsibilizazio handiagoarekin hartzeak ez du esan nahi hemen ere ez daudenik egoera deseroso eta arrazakeriakoak.

Nire ustez, gizarteko pertsona orok gehiago pentsatu beharko lukeela hauen egoeraz eta duten bizimoduaz uste dut eta alde batera utzi behar direla kexa eta zenbait epaiketa. Nire inguruan daukadan jendea, nahiz eta herri txikikoak izan, uste dut nahiko zabalik gaudela mundura, hala ere, asko dago oraindik lantzeko. Orokorrean nire ustez, leku denetan bezala, denerako pertsonak daude, onak, gaiztoak, laguntzaileak, etab. baina gai honi buelta bat eman behar zaiola argi dago. Laburbilduz, nire ustez aniztasuna egotea gaur egun ezinbestekoa da eta horrekin batera guk geuk asko ikasteko dugula eta gure burua zabaltzeko aukera ematen digula uste dut.

Etorkizunera begira nire ustez gai honen inguruan gauza pila bat jorratu daitezke. Baina nik ikusitakoaren eta jakitsuak diren hiztunekin aritu ondoren, immigratzaileak edota errefuxiatuak diren pertsona hauek etxebizitzaren sarbidean duten arazoaren inguruan aritzea oso gai interesgarria irudituko zitzaidan. Hortaz gain, atzerritar hauei, etorkizunera begira egoera ekonomiko eta lanpostuen inguruan zer nolako prestakuntza maila eman ahal zaien ere aztertzea oso komenigarria iruditzen zait. Baita, integrazio mailan egin daitekeen lan pila hori jorratzea egokia

litzateke eta gainera, hezkuntza mailan ere buelta bat eman behar dela eta itundutako zein probatuak diren ikastetxeetan ere zerbait egin behar dela diot, beraz, hori ere aztertzea egokia dela deritzot. Azkenik, gaur egun dakigunaren eta ezjakintasun horren inguruan galdetzea oso interesgarria iruditzen zait, hau da, bertatik analisi bat egin daitekeelako benetan zenbat dakigun gai eta gaur egun pil-pilean dagoen gaiaren inguruan.

5. BIBLIOGRAFIA

Arango J. (2003) Inmigración y diversidad humana. Revista de Occidente [Internet]. [Kontsulta data: 2019/03/15], (268): 5-21. Eskuragarri: [http://ortegaygasset.edu/descargas/contenidos/\(268\)Joaquin_Arango.pdf](http://ortegaygasset.edu/descargas/contenidos/(268)Joaquin_Arango.pdf)

Cabré, A., Domingo, A. eta Menacho, T. (2002) Demografía y crecimiento de la población española durante el siglo XX. Mediterráneo económico [Internet]. [Kontsulta data: 2019/04/19], (1) :121-138. Eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=605675>

Cachón Rodríguez L. (2002) LA FORMACIÓN DE LA «ESPAÑA INMIGRANTE»: MERCADO Y CIUDADANÍA. Reis. Revista Española de Investigaciones Sociológicas [Internet]. [Kontsulta data: 2019/04/19],(97):95-126. Eskuragarri: <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=99717915004>

De Valderrama C. B. F. (2008) Inmigración extranjera en el País Vasco. Estrategias políticas para la gestión de la diversidad/Foreign Immigration in the Basque Country. Political Strategies for Management of Diversity. Política y sociedad [Internet]. [Kontsulta data: 2019/04/19], 45(1): 187-203. Eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2709245>

Devoto F. J. (2007). La inmigración de ultramar. Población y bienestar en la Argentina [Internet]. [Kontsulta data: 2019/03/20], 531-548. Eskuragarri: http://www.valijainmigracion.educ.ar/contenido/materiales_para_formacion_docente/textos_de_consulta/9%20Devoto%20-%20La%20inmigracion%20de%20ultramar.pdf

Esteve J. M. (2003) La tercera revolución educativa (La educación en la sociedad del conocimiento). Paidós Ibérica [Internet]. [Kontsulta data: 2019/03/20], (4): 1-11. Eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3286677>

Fuentes F. J. M. eta Callejo M. B. (2011) Inmigración y Estado de bienestar en España. [Internet]. Barcelona: Obra Social "la Caixa" [Kontsulta data: 2019/04/19]. Eskuragarri: https://www.publicacionestecnicas.com/lacaixa/inmigracion/files/31_es/descargas/31_es.pdf



Ikuspegi.(2019) Immigrazioaren Euskal Behatokia. [Internet]. Leioa: Ikuspegi [Kontsulta data: 2019/04/23]. Eskuragarri: <https://www.ikuspegi.eus/eus/>

J&D (2019) Immigration Advisers. ¿Cómo es el arraigo social y como se tramita? [Internet]. Madrid: IMMIGRATION ADVISERS; [Kontsulta data: 2019/03/20]. Eskuragarri:<https://jdimmigration.es/que-es-el-arraigo-social-y-como-se-tramita/>

Núñez M. I. L., Retamosa J. M. V., García J. eta Valdehita S. R. (2018) Multiculturalidad y Ciencias Sociales: El caso de Psicología. Comunitania[Internet]. [Kontsulta data: 2019/04/19], (15):219-242. Eskuragarri:<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6921981>

Pajares M. (2007) Inmigración y Mercado de Trabajo. GRECS (Universidad de Barcelona) [Internet]. [Kontsulta data: 2019/03/10], 0-13. Eskuragarri: http://www.aytosagunto.es/es-es/ayuntamiento/servicios/BienestarSocial/ServiciosSociales/VSemanaIntercultural/Documents/5intercultural_inmigracion.pdf

Perez Porto J. eta Gardey A. (2009) Definición de Inmigración [Internet]. Lugar de publicación: WordPress; [Kontsulta data: 2019/04/24]. Eskuragarri: <https://definicion.de/inmigracion/>

Ramírez J. B. V. (2000) Las emigraciones españolas a Europa en el siglo XX: algunas cuestiones a debatir. Migraciones & Exilios: Cuadernos de la Asociación para el estudio de los exilios y migraciones ibéricos contemporáneos (1): 131-159. [Internet]. [Kontsulta data: 2019/04/19] Eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2328092>

Sebastián M. (2006) Inmigración y Economía Española:1996-2006 [Internet]. Madrid: Oficina Económica del Presidente del Gobierno; [Kontsulta data: 2019/03/15]. Eskuragarri: <http://mcaugt.org/documentos/0/doc1501.pdf>

ERANSKINA:

ELKARRIZKETEN GIDOIA

NORA UGARTEBURU (SOS RACISMO)

- Badakit SOS RACISMO-n aritzen zarela baina bereziki zertara dedikatzen zarete eta nolatan hasi zinen hemen lanean?
- Zein uste duzu dala gaur egungo egoera atzerritarren kasuan, bai Espainian baita Euskal Herrian ere?
- Erretxazoak edo diskriminazioak egon ohi dira, zein uste duzu dela arrazoia? Edo zergatik jokatzen dute modu horretara bertako jendeak?
- Zuk federazio honetan hainbat kasu ezberdin bizi izango zenituen, zein uste duzu dela kasurik ohikoena? Eta gehien hunkitu zaituena?
- Errefuxiatuen beharra dagoela uste duzu?
- Lanean zehar zenbait ezberdintasunen inguruan aritu naiz, batik bat osasuna, hezkuntza baina baita ikusi dut nola enpleguan ere ezberdintasun handiak daudela. Normalean zerbitzuen sektoreak okupazio-tasa altuena du atzerritarren kasuan, hori zergatik izan ohi da? Errazena delako aurkitzeko? Eta hortaz gain izan daiteke guk, bertakoek, ez dugulako bereziki nahi bertara dedikatu?
- Hortaz gain, industrian, nekazaritzan eta eraikuntzan gizonezkoak dira gehiengoak, zergatik dela uste duzu hori?
- Osasun arloan, hezkuntzan.. asko hitz egiten da horren inguruan, zer uste duzu horren inguruan? Esaten den bezala atzerritarrak osasun-publikoaz aprobetxatzen dira?
- Hezkuntzan, asko dagoela oraindik egiteko uste duzu integrazio aldetik esate baterako? Batzuetan ikasleak sakabanatu egiten dituzte beharbada atzerritarrak ikasterako orduan zertxobait gehiago kostatzen zaielako, zuk zein uste duzu dela modu egokiena? Hori saihesteak arrazismoa edota pertsona horiengan erretxazo gutxiagotzea ekarriko zuen?
- Zenbait jakintsuren esanetan, Euskal Herrian atzerritarrengan zegoen erretxazo hori txikiagoa zela zioten Espainiarekin alderatuz 2005-2007 urte inguruan, zergatik zela uste duzu hori? Eta gaur egun egoera igualtsua dela esango zenuke?
- Zuen ustetan arrazismoa pertsonaren nazionalitatearekin erlazionatuta dago?
- CEAR Euskadi ezagutzen duzula uste dut, zertan bereizten zarete?

CEAR- EUSKADI:

- Kaixo, azalduko zenidake gutxi gora behera zertan datzan CEAR asoziazioa?
- Asiloarekin lana egiten duzuela badakit, nola tramititzen da edo zein da bidea asiloa eskatzen duzunik?
- Zein uste duzu dala gaur egungo egoera atzerritarren kasuan, bai Espainian baita Euskal Herrian ere?



- Zuk asoziazio honetan hainbat kasu ezberdin bizi izango zenituen, zein uste duzu dela kasurik ohikoena? Eta gehien hunkitu zaituena?
- Errefuxiatuen beharra dagoela uste duzu?
- Lanean zehar zenbait ezberdintasunen inguruan aritu naiz, batik bat osasuna, hezkuntza baina baita ikusi dut nola enpleguan ere ezberdintasun handiak daudela. Normalean zerbitzuen sektoreak okupazio-tasa altuena du atzerritarren kasuan, hori zergatik izan ohi da? Errazena delako aurkitzeko? Eta hortaz gain izan daiteke guk, bertakoek, ez dugulako bereziki nahi bertara dedikatu?
- Hezkuntzan, asko dagoela oraindik egiteko uste duzu integrazio aldetik esate baterako? Batzuetan ikasleak sakabanatu egiten dituzte beharbada atzerritarrak ikasterako orduan zertxobait gehiago kostatzen zaielako, zuk zein uste duzu dela modu egokiena? Hori saihesteak arrazismoa edota pertsona horiengan erretxazoa gutxiagotzea ekarriko zuen?
- Zenbait jakintsuren esanetan, Euskal Herrian atzerritarrengan zegoen erretxazo hori txikiagoa zela zioten Espainiarekin alderatuz 2005-2007 urte inguruan, zergatik zela uste duzu hori? Eta gaur egun egoera igualtsua dela esango zenuke?
- Beste kasuren bat aipatzekotan, zein uste duzu dela gaur egun errefuxiatuek duten zailtasunik handiena sozietatera moldatzerako orduan, zein alorretan?
- Zuen ustetan arrazismoa pertsonaren nazionalitatearekin erlazionatuta dago?
- SOS RACISMO ezagutzen duzula uste dut, zertan bereizten zarete?

MIGUEL (UCRANIARRA):

- Zu non jaiotakoa zara? Zenbat urterekin etorri zinen hona eta zergatik erabaki zenuen zure herrialdetik Espainiara etortzea?
- Orain hemen zure familiarekin bizi zara?
- Hasiera batetik Euskal Herrira iritsi ziren? Kontatu ahalko didazu nolakoa izan zen etorri zineneko esperientzia?
- Hona etorritakoan zer egin zenuen? Hasiera batetik lanean hasi zinen? Zure egoera nolakoa zen, paperak ba al zenituen?
- Ondoren Elgetako enpresa txiki batean hasi zinen lanean, nola lortu zenuen Elgetara iristea?
- Denbora pasa ahala, dagoeneko Euskal Herrian bizi zara, non? Nolakoa da zure gaur egungo egoera?
- Inoiz bizi izan al duzu arrazismo egoerarik?
- Zein uste duzu dela gaur egun atzerritarrak duten zailtasun handiena gure herrialdera moldatzerako orduan?

KALEKO PERTSONA BAT:

- Zure ustetan immigrazioak gaur egun duen indarra handiagoa dela esango zenuke orain dela urte batzuk baino? Zergatik uste duzu dela hori?
- Gure herrialdean errefuxiatuen etorrerak ondorioak izan dituztela esango zenuke? Zeintzuk esate baterako?



- Zuk uste duzu ona dela Euskal gizartea kultura eta etnia askoz osatuta egotea?
- Zure ustetan atzerritarrek beraien kultura, ohitura, etb. alde batera utzi beharko zituzten onartuak izateko?
- Atzerritarren etorrerak gure hizkuntzan eragina izan dezakeela uste duzu?
- Egoera ekonomikoan sartuz, zure ustetan atzerritarren etorrerak gure ekonomia hobetzen laguntzen du?
- Zure ustetan atzerritarren etorrerak negatiboki eragiten duela uste duzu gizarteko segurtasun sozialean?
- Integrazioaren kasuan, herritarrok modu egokian jokatzeko dugula uste duzu? Eta ikastetxeetan esate baterako, nola antolatu beharko ziren atzerritar eta bertakoen artean bereizketa hori saihesteko?
- Zure ustez zein da gaur egun arrazismoa edo erretxazo hori egotearen arrazoia?
- Lanean zehar zenbait ezberdintasunen inguruan aritu naiz, batik bat osasuna, hezkuntza baina baita ikusi dut nola enpleguan ere ezberdintasun handiak daudela. Normalean zerbitzuen sektoreak okupazio-tasa altuena du atzerritarren kasuan, hori zergatik dela esango zenuke?
- Atzerritik etorri den lagunik edo ezagunik ba al duzu? Izatekotan, berarekin egonda bizi izan al duzu inoiz egoera deserosorenbat?
- Zure ustetan oraindik arrazismoa dagoela uste duzu? Orain dela urte batzuk baino gehiago edo gutxiago?